

1994ko urriak 21

251. zenb.


PRESS

ARRASATE

Gorostiza baserria

Monumentua etxeen artean

URRIAREN 23AN, LEGEBILTZARRERAINOKO KARRERAREN BUKAERA



**Euzkadi berritzearekin
elkar zaitez**



Eman botoa



**EAJ
PNV**

Musikaz blai, edo euripean abesten

Aurten azti batek Maritxu Kajoi egunean euririk jausiko ez zela aurreratu zidan, eta buruari bueltak ematen hasi nintzaion, honen ordez, "bus-titzeko" beste zerbait aurkitu nahiean.

Errioxako herri batean, astebukaera guztian zehar kontzertuak zeuden, 20 bat talde guztira, eta beharbada larregi izan arren, aukera paregabea, musika egarrria asetzeko. Gauza bat argi dago: guzti honetan gozatzeko, musika orokorki atsegin behar duzu, ordu asko zutik egoteko gai izan behar duzu eta bukatzeko, garrantzitsuena, talde ezezagunak (entzun gabe dituzunak) deskubritzeko irrika edo gogoa izan behar duzu.

Azken hau da nik gaur egun, hilzorian ikusten dudana musika-zale talde mota. Jendeak, orokorrean, botatzen diotena entzuten du eta ez da musika gehiagoren bila aritzen, konformatu egiten da. Bitartean, musika taldeek askotan ezinezkotzat daukate entzuleenganaino beraien lana eramatea. Ez da erraza irratietan agertzea, are gutxiago estilo eta testuen arabera.

L. P "bedeinkatu" hori ateratzeaz ari garenean ere, ez dugu lehengo moduan pentsatzen. Askok aldatu da dena, eta zigilu independenteak badaudenez, errezagoa da, baina oso garestia da (musikariaren poltsikoentzako), eta zenbaitetan, diskoa kalean egon arren, ez

da batere saltzen, jendeak ezagutzen ez duelako.

Beraz, dinamika inozo eta aldaezin honetan murgildurik, euren burua euren kasa promozionatzea ikusten da bide krudel eta bakartzat, nonahi ahal beste kontzertu eginenez. Baina, berriz ere, oztoporen bat agertu behar, eta hara non, jendeak ez dio Gaztetzeez etabar eskeintzen duten ikus-entzunkizun zabal eta merke honi, kutsua hartzen. Paso egiten du jendeak. Egia da, batzuk diru gutxiago daukagula, baina 300 edo 400 pta. edozer gauzatan gastatzen dugu hortan baino gehiago.

Gaztetzeez ez lukete hainbeste galdutik beharko, ezta musikariek hainbeste ilusio alferrik xahutu ere. Jendearen laguntza behar dute, hauek ikus ditzan eta horien ostean, jakin dezala atsegin dituen edo ez.

Hau aldatzen ez bada, talde famatuak ikusteko aukera egongo da bakarrik, eta ez hiru "txapatara", ez, luxu bat bihurtzen ari baita.

Rock'n'rolla nahi baduzu, begiak zabaldu eta bestela Koka-Kolak edaten jarraitu.

IKER BARANDIARAN



ARRASATEN



**Umeentzako
oinetakoak
eta
berezitasunak**

Zerkaosteta, 15
Tfnoa: 79 61 13


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euskal Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Valles.

CARLOS MORGENROTH
FISIKOA

**NEURRIA
EGINDAKO
PROGRAMAZIOA**

• Zure behar eta nahietara egindako programarik egokiena egingo dizugu.

• Sistema eta ekipoei buruzko aholkularitza osoa.

- DENDAK ETA TABERNAK
- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK (PYMES)
- IKASTETXE ETA AKADEMIAK
- PROFESIONALAK

Foruen plaza, 1-6 ARRASATE
Tfnoa: 79 54 87

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb. 3-1^a
Tel.: 79 32 16
FAX: 79 06 28
Arrasate

Titulu Ofizialak

- Klinika Laguntzailea
- Dietetika eta Nutrizioan Teknikaria

Justizia Oposaketak

- Laguntzaileak
- Agenteark
- Ofizialak

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

•••••

Gaszte tertuliaren nondinorakoa

Igande arratsaldea pasatzeko era aberatsago bat (telebista ikusten baino) bilatuz, kafe tertulia hau antolatatu dugu Arrasaten, gazteon iniziatibak bultzatzeko asmoz.

Iharduera honetan interbentzio asko egon ziren, era guztietako iritzi eta kezka azaldu zirelarik. Horregatik, azpimarratzen dugu iritzi desberdinen protagonismoa gazteok gure ideiak azaltzeko eta besteengandik ikasteko aukera izan dezagun. Hor datza ideien aberastasuna.

Herri Batasunako gazteon partetik horrelako tertuliak egiten jarraitzeko borondatea jartzen dugu, gazteen artean gogoak badaudela somatzen baita. Horregatik diogu ez dela ez lehena eta ez azkena izango.

Ez dugu muga pertsonal eta geografikorik jarri nahi. Horregatik, gonbidapen bat

luzatzen dizuegu Arrasateko gazteoi, gaiak planteatu edo eta parte hartzera. Hala ere, ez dugu guk bakarrik egin behar, animatu zaitzete beste gazte talde edo mugimendu antolatza; gu joango ginateke gustora. Gazteok gure esparrua landu eta aberastu behar dugun honetan bat gatoz eta.

Honekin batera proposamen bat luzatzen diogu ARRASATE PRESS-i ere; idatzizko tertulia lantzeko bidea: aldizka, gai konkretuei buruzko iritziak jasoko lituzkeen orrialdea burutzea.

Baliteke akatsak ere iza-

tea (propaganda...) baina BEREZKO bidea eraman zuen tertuliak eta horregatik balorazio baikorra egiten dugu. Beraz, tertulia hauek jarrai bezate!

Azkenik, Bionakoei eskerrak eman lokala utzi eta tabernaren zabaltze ordua luzatzearen, tertulia bera uste baino luzeagoa izan baitzen (nonbait gustora geunden). Eta, nola ez, eskerrik asko Mikeloni eta berarekin batera, parte hartu zenuten guztioi.

HBKO ESKUZ-ESKUZKO GAZTEAK.

Oharra

Datorren asteko ARRASATE PRESS aldizkaria baino lehen, kalean izango gara berriro: Datorren astelehenean, Hauteskunde egunaren bihamonean, Arrasateko emaitzak fresko-fresko jakiteko modua izango duzu, kiosko, taberna eta okindegietan. Astelehenera arte!

Zuzenketa

Joan zen asteko ARRASATE PRESSEKO gutunetako akats bat zuzendu beharrean gaudete: "Kafe Tertulia" izenburupeko gutunean hitz arraro bat (Ninguno) sartu zitzaigun ordenagailuren magiaz, eta sinatzailearen izena ere (Eskuz-eskuzko gazteak) ez zen osorik agertu. Barka endredoak.

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28




HAURTXOAK

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Zelakoa izatea gustatuko litzaizuke etorkizuneko Arrasate?




Daniel Manzanos
Ederlaneko langilea
(48 urte)

Aparkaleku gehiago izatea batez ere. Gaur egun arazoa da aparkatzeko tokia aurkitzea.



Nerea Mondragon
Ikaslea
(18 urte)

Auto gutxiagorekin. Herri barruan ez litzateke hainbeste auto ibili beharko. Auto-bus urbanoa jarriko nuke.




Angel Zeziaga
Ikaslea
(23 urte)

Natura aldetik ingurua nahiko aberatsa denez, gazteontzako behintzat ez da berdegunerik falta baina adinekoentzat beharbada bai. Gazteek etxebizitza merkeak behar dituzte.



Loli Hernandez
Langilea
(21 urte)

Arrasaten umeentzako parkeak falta dira. Etxeak nahikoa daude, jendeak ez dauka erosteko dirurik eta.



Eduardo Jimenez
Jubilatua
(61 urte)

Batez ere berdegune gehiagorekin. Gainera, Zigarrolatik erdikaldera arte pasealekua egin beharko litzateke.



Romana Garcia
Etxekoandra
(62 urte)

Zaldibar barriztu egingo nuke, batez ere umeek jolastuten duten tokia. Besterik ez.



Feliciano Leibar
Jubilatua
(64 urte)

Erdikaldean berdegune gehiago edukitzea gustatuko litzaidake. Bestalde, auzoetan zerbitzuak jarri beharko lirateke eta etxeak, berriz, soberan daudela iruditzen zait.



Emi Etxabe
Etxekoandra
(50 urte)

Azken urtetan Arrasate asko edertu da baina aurrerantzean egingo diren etxeak estetikoki politagoak egitea eskatuko nuke.

NAROKI
Urrezko bitxiak
ERDIKO KALE, 23
ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

PRESS
ARRASATE
Harpidetzak:
77 08 15

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igoalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterongo liburutegia
 Monterron.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 21
 Egunez eta gauez: Ruiz, Magdalena.
Larunbata 22
 Egunez eta gauez: Morales, San Andres.
Igandea 23
 Egunez eta gauez: Azkoaga, Ferrerías.
Astelehena 24
 Egunez eta gauez: Español, Iturriotz.
Asteartea 25
 Egunez eta gauez: Corcuera, Musakola.
Asteazkena 26
 Egunez eta gauez: Irizar, Erguin.
Osteguna 27
 Egunez eta gauez: Amezua, Sta. Marina.


21 OSTIRALA

ZINEA
 "La estrategia del caracol"
 7etan eta 9.30etan.

22 LARUNBATA

ZINEA
 "Cuatro bodas y un funeral"
 5etan, 7.30etan eta 10etan.

PERRETXIKO LEHIAKETA
 III. perretxiko lehiaketa, San Viatorrek antolatuta. Goizeko 10etatik ordubata arte Sebero Plazan; eguraldiak laguntzen ez badu Kalistroetan.



III. PERRETXIKO LEHIAKETA
San Viator ikastetxean antolatuta Perretxiko lehiaketaren erakusketa Seberon 10etatik aurrera.

23 IGANDEA

ZINEA
 "Cuatro bodas y un funeral"
 5etan, 7.30etan eta 10etan.


HAUTESKUNDE PROGRAMA
 Hauteskunde saioa berezia ATBn gaueko 9.30etatik aurrera. Mikel Irizarrek aurkeztuko du eta alderdi desberdinetako partaideak balorazioak egingo dituzte.

MENDIA BEREZ GARBIA
 Gipuzkoako Mendi Federakundeak, garbiketa kanpaina egiten du urtero Euskal Herrian zehar, Mendia Berez Garbia lemapean. Aurten, Atxabaltako Murruxiko taldeak eta Besaide mendizale elkarteak Degurixa inguruak aukeratu dituzte garbiketa lanak egiteko. Irteera, Besaideren Egoitzatik 8.30etan eta Murruxikoren lokaletik 9etan.

KONTZERTUA
 Errusiako Orkestraren kontzertua Amaia Antzokian arratsaldeko 8etan. Arrasate Musikalek antolatuta. Pezioa: Bazkideentzako 1.000 pta eta bazkide ez direnentzat 2.500 pta.

MENDI IRTEERA

Besaide Mendi Elkarteak mendi irteera antolatu du Urriaren 29-30-31 eta azaroaren 1erako. Ibilbidea: Pirineoak; Holtzarte (Zuberoa)-Zuriza (Huesca). Irteera: Urriaren 29an, goizeko 7etan Garibaitik. Izenematea: Urriaren 25-26an, 7.30etatik 8.30etara Besaideren Egoitzan.




HAUTESKUNDE EGUNA IGANDEAN
 Hauteskunde eguna dela eta, hauteskundi buruzko saio berezia Mikel Irizarrek zuzenduta, ATBn, gaueko 9.30etan igandean.

24 ASTELEHENA**ZINEA**

"Cuatro bodas y un funeral"
7etan eta 9.30etan.

MENDI ORIENTAZIO IKASTAROA

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak Mendiko Orientazio ikastaroa antolatu du azaroaren 5-6 eta 12-13rako, Brinkolan. Izenematea: Urriaren 25-26-27an, 7.30etatik 8.30etara Besaideren Egoitzan. Prezioak: Bazkide nagusiek 14.000 pta ordaindu beharko dute; gazteek 12.500 pta. Bazkide ez diren nagusiek 16.500 pta. eta bazkide ez diren gazteek 14.000 pta. Mendi federatu karneta edukitzea ezinbestekoa da.

**MASAI BATUA IKASTAROA**

Masai kreaizaile eta integratzailea ikasteko eta baita mendealdeko eta ekialdeko masaia era desberdinak ere ikasteko ikastaroa. Urriaren 29an, 30an eta 31an eta azaroaren 1an emango da ikastaroa Elgoibarko Aubixa barnetegian, San Pedro auzoan. Irakaslea Jose Luis Armendia, yoga irakaslea eta masajista da. Arrasateko yoga elkarteak antolatuta. Informazio gehiagorako 793576 zenbakira dei eginez.

25 ASTEARTEA**ZINEA**

"Cuatro bodas y un funeral"
7etan eta 9.30etan.

TRIL EMAKUME TALDEA

Aretxabaletako Tril Emakume taldeak gantxilo eta bainika ikastaroa antolatu du. Loramendi Kultur Elkartearen lokalean emango da astelehenero 3etatik 5etara. Prezioa: 1.000 pta. Izenematea: Loramendi Kultur Elkartearen Lokalean edo 770970 zenbakira dei eginez.

HITZALDIA

"Noruntz doa Kuba" Monterronen 7etan. Hizlariak: Gariquito Agote, ekonomilaria eta Alberto Iñurrieta, brigadista. AEDk antolatuta.

APOSTASIAREN ALDEKO BATZARRA

Apostasiaren aldekoek batzarra izango dute, Donostiako apezpikutegitik jaso den erantzuna aztertzeko eta aurrerantzean emango diren urratsak erabakitzeko. Arratsaldeko 8etan Jai Zale elkartearen

26 ASTEAZKENA**GURASOENTZAT HITZALDIA**

Almeneko ikasleen gurasoentzatzat hitzaldia. Gaia: ikasleekin egin dituzten azterketen emaitzen aurkezpena. Hizlaria: Jabier Elzo soziologo. Arratsaldeko 6.30etan, Almenen.

GURASO BILERA

San Viator ikastetxean guraso bilera. Lehen hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak, 6etan San Viator Txikin.

HITZALDIA


"¿Leer para qué?" izenburupean hitzaldia izango dugu Monterronen arratsaldeko 6.30etan. Hizlaria: Victor Moreno, idazlea eta literatur irakaslea. Liburutegiak antolatuta.

27 OSTEGUNA**GURASOENTZAT HITZALDIA**

Almeneko 6. mailatik beherako ikasleen gurasoentzatzat hitzaldia. Gaia: Almeneko ikasleekin egin dituzten azterketen emaitzen aurkezpena. Hizlaria Jabier Lezo soziologoaren taldea. Arratsaldeko 6.30etan Almenen.

GURASO BILERA

San Viator ikastetxean guraso bilera. Lehen hezkuntzako 3., 4., 5., 6. mailak, arratsaldeko 6etan San Viator Txikin.

**LAN- MUNDUAN SARTZEKO IKASTAROA EMAKUMEZKOENTZAT**

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak elektrizitatean trebatzeko ikastaroa antolatu du. Baldintzak: Emakumea izatea, eskola-graduatu edo maila hori lortzeko konpromezua, enplegu-eskatzailearen txartela. Azarotik apirilera bitartean, astelehenetik ostiralera 3 ordu egunero, arratsaldeko ordutegia. Edukina: Elektrizitatea, soldadura eta muntaia elektrikoak, enpresa gestioa, enpresa-marketing-a.

“Gaur ospatzen da Arrasaten txikitero eta zurruteroen festa bitxi hau, kanpotar asko erakarri eta gehientsuenak balantxaka itzulerazten dituena.

Jai honek badu bere inguruan elementu interesgarririk: jantziak, lagunarteko afariak, edari biziei tamaina hartzen dien jendearen gozamina... Baina, barka biezadate herrikideek, badu harrotasun handirik sortu behar ez lukeen zerbait ere: neurri barik edan beharraren apologia soziala. Eta gaueko ordu txikietan herriko kaleetan ikusi ohi denak zalantza bat baino gehiago sortzen du hankabikoaren zentzuaz”.

Iñaki Mendigurenek 94-10-7

Egunkaria

“EAJrekin eta EArekin batera gobernatu izana esperientzia oso aberasgarria izan da, bai modu pertsonalean, eta baita Arrasateko Udalean poliki-poliki lanerako oso giro egokia lortu delako, desadostasunak eta eztabaida asko izan ditugun arren. Hala ere, lortu dugu eztabaidarako halako kultura bat, eta akatsak akats eta zailtasunak zailtasun, hori behintzat ikasi dugu egiten, elkarrekin bizitzen eta elkarri errespetua izaten. Alde horretatik denok ikasi dugu.

(...) Arrasaten zehazki herritarren presioa izan zen EAJren eta PSOeren arteko gobernu osoa ez zedin. Horren ondorioz lortu zen bigarren aldiz hiru alderdi euskaldunon artean gobernu osoa osatzea”.

Xabier Zubizarretak 94-10-9

Egunkaria

“Espainiako gobernuak bultzatuko “Renove” kanpaina asko igarri da salmentatan. Batetik merkatua bisitu du, baina gehiago eragin psikologikoagatik dirua beragatik baino, lehenago ere orain egin den eskaintzaren antzerakoak eskaini izan baititugu saltzaileok. Horrez gain, bigarren eskuko autoaren balorea bere lekuan jarri du.”

Antxon Blanco, Talleres Olako gerenteak **ARGIA**

Zenbat igoko dira ordenantza fiskalak?

Datorren urtean, zergek eta tasek orokorrean % 3'5ko igoera izango dute. Udalaren gastuei aurre egitera zuzenduta dauden zergen bitartez, gastuari aurre egiteko behar den herena jasoko du Udalak. Arlo horretan, ibilgai-luen gaineko zergaren (autoenaren) %5eko igoera eta ondasun higiezinaren gaineko zergaren (hiri lurarenaren) %3'8ko igoera aipatuko nituzke.

Bestalde tasak ditugu, hau da, udalak eskaintako zerbitzuez baliatzearen truke ordaindu behar den diru kopurua. Horietan uraren igoera da batez ere azpimarragarriena. Ur tarifa %5 baino ez da igoko, baina saneamenduzko tasa ere izango denez, guztira %15 garestituko da uraren prezioa. Kontua zera da, Ur Partzuergoak hainbat azpiegitura egin nahi dituela berriz ere errekarara ur garbia bidali ahal izateko. Jakina, azpiegitura horretarako inbertsioak egin behar dira eta Arrasateko Udalarai 29 milioi inguru ordaintzea tokatu zaio. Partzuergoak ezarritako kanon horregatik garestituko da ura baina Gipuzkoa mailan ezarrita dauden tarifekin konparatuz, uraren prezioa Arrasaten merkea dela esan daiteke. Beste herri batzuetan askoz ere gehiago ordaintzen dute.

Bestalde, udal hilerriaren zerbitzuan ere izango da garestituzkerik. Panteoien salmenta bultzatu nahi denez, nitxoeren erosketak %17ko igoera izango du eta panteoien, berriz lehen bezala gertatuko da. Bukatzeko, kirolegia %5, zaharren egoitza %4'5 eta zaborren zerbitzua %3'5 garestituko direla aipatuko nuke.



Kepa Undagoitia
Udaleko Errenten
Teknikaria

LARUNBATETAN

INGELES

**IKASTAROAK HASTEKOTAN DAUDE!
EMAN IZENA, ORAINDIK EGIN EZ
BADUZU!**

PREZIO BEREZIAK

ASTEAN 3 ORDU ASTEAN 3 ORDU ASTEAN 3 ORDU

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES

Kalitate goiena leihuetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

iu Iuren hitzaldia

Jose Luis

Ainsua, Ezker Batuko Gipuzkoako zerrendetako lehena, hurbildu zen joan den ostegunean Aretxabaletara. Joseba Ugalde arrasatearrarekin batera hitzaldia eman zuen Ainsuak. Bere esanetan, Legebiltzarrean parte hartzeko aukera izan dezakete eta horregatik, Ezker Batuari botoa ematea boto ausarta ematea dela adierazi zuen.



AEDko liburuaren aurkezpena

AED literatur lehiaketan sarituak izan ziren lanak batzen dituen liburua, joan den asteartean aurkeztu zen udaletxeko pleno aretoan. Liburuaren aurkezpena Jon Anduezak egin zuen eta Ibon Iribarrenek, Lubaki Bandako partaideak, liburuaren balorazioa egin zuen. Ekitaldian zehar gainera, arlo desberdinetako irabazleek ere saritutako lanak irakurri zituzten.

AED literatura jorratuko duen talde bat sortzekotan ari dela eta, Lubaki Bandako partaideak literatur taldearen berri ere eman zuen.

lehendakariak azaldu zuenez, Euskadi berritzeko ezinbestekoa da herriaren laguntza izatea.

emaitza ona lortzea espero dute. Antiguiedad, berriz, gatazka elkarrizketaren bidez konpontzearen alde azaldu zen.



Batasun Eguna

Herri Batasunak Batasun

eguna ospatu zuen joan den igandean. Mitina hasi baino lehen, buzkantzak eta gaztainak jateko aukera izan zuten herriko plazara hurbildu zirenek. Ostean, mitina eman zuten Xabier Zubizarretak eta Iñaki Antiguiedadek. Zubizarretaren esanetan, HBk botoak irabaziko ditu datozen hauteskudetan eta

Nikaragua

Paco Alvarezek, Hirugarren Adinerako Instituto Komunitarioko bazkideak, hitzaldia eman zuen asteartean Urribarriko jubilatuen etxean. Maiatzean eta ekainean Nikaraguan izan zen Paco, garapen teknologikoko programa garatzen. GTZ talde alemaniarraren bidez joan zen Managuara, talde horrek Arrasateko ICTE taldeari laguntza eskatu zion eta.

Ikastaroa

Asteartetik ostegunera bitartean salmenta eta negozio teknikei buruzko ikastaroan parte hartu zuten Ibai Arteko hainbat merkatarik. Ikastaroan produktua nori saldu, salmenten egiturak eta, etekinen aurkezpena landu ziren besteak beste.

Istripuak

Asteartean bi istripu izan ziren Arrasaten. Goizeko 11etan Zaldizpe inguruan auto batek eta motor batek elkar jo zuten eta motorra gidatzen zuen laguna Eskualdeko ospitalera eraman zuten. Bigarrena eguerdian gertatu zen Eroskiko bidegurutze inguruan. Istripu horren ondorioz, 45 urteko emakumea Eskualde Ospitalera eraman zuten eta errepidean olioja jausi zenez, herri-lanen brigadak garbitu behar izan zuten.

JAIOTZAK

- Maider Etxegibel Larrañaga. Urriaren 8an.
- Jokin Berezibar Errarte. 12an.
- Xabier Ormaetxea Orobengo. 10ean.

EZKONTZAK

- Manu Gallardo & Txaro Jauregi. Irailaren 23an. Elizaz.
- Ignacio Aspiazu Alonso & Maria Angeles Pequero Lopez. Urriaren 15ean. Zibilez.

HILDAKOAK

- Maria Erguin Barquin. 12an. 94 urte.
- M. Rosa Portalo Carmona. 13an. 41 urte.
- M. Luisa Mondragon Altuna. 13an. 83 urte.

PSE-EEren karabana

Joan den ostiralean PSE-EEren karabana iritsi zen Arrasatera.

Larrosa gorriak banatuz, herritarrengana hurbildu ziren sozialistak. Jose Antonio Maturana, Hirigintza eta Ingurugiro diputatua eta Rafaela Romero arrasatearra izan ziren besteak beste. Maturanaren berbetan, bakea lortzea ezinbestekoa da herri aurrerakoia izateko.


EAJren karabana

Eusko Alderdi Jeltzaleko karabana ostiral goizean heldu zen Arrasatera. Jeltzaleek goxokiak eta aldizkariak banatu zituzten. Joseba Leizaola, Eusko Legebiltzarreko

Zarugalden...

BRANKA

taberna



RAKEL PEREZ DE ARANA *

Hau dena aldatu egin behar dugu

Gure lan egoera gero eta txarragoa da (gero eta azpilan gehiago, baldintzarik gabe, zatituta, zabor kontratuak...) laguntzak lortzeko posibilitateak gehiago kotizatzea eskatzen du. Gizarte modelu honek gizarte gastuak murrizten ditu, pentsioetan, osasun arloan eta familiari dagozkio berriro ere gizarteak hartu beharrezko ardurak (gaixoak, pertsona nagusiak eta haurrak zaintzea) eta emakumeok behartuak ikusten gara betebeharrak hauek arduratzen, berez zaila den lan merkatura sartzeko oztopoak haundituaz.

Nahikoa da! Elkarte Europarrean emakume-lan-gabezi mailarik haundiena Euskal Herrian dago (10 Emakumetatik 7 etxean gaudete eta beste hiruretatik... bat langabezia; eta 19 eta 25

urte bitarteko gazteen artean %90 langabezia gaudete). Emakumeok gizonen eskubide eta betebeharrak berberak ditugu. Politikak axola digu.

Aski da! Gure eskuek dohainik lana egiten dute,

.....

*Elkarte
Europarrean
emakume-
langabezi
mailarik
haundiena
Euskal Herrian
dago*

guregain eta gure depresioen kontura gizarte honek dirua egiten duen bitartean.

Gutziz premiako delako gure independentzia ekonomiko lortzea, geure baitan ibil gaitzen... gurasoekiko, senarrekiko eta lagunekiko menpekotasun ekonomikorik gabe.

Behar beharrezkoa dugulako lan orduak eta aisialdia birrantolatzea, gizon emakumeok aukera berdina izan ditzagun ikasketa, lan maila eta gizarte mugimenduan ere.

Emakume eta gizonen guztion partehartzea beharrezkoa delako, sexista, bortitz eta elkartasunik gabekoa den gizarte hau aldatzeko..., herrien gartzela eta askatasun pertsonal eta kolektiboen gabezia bete dena...

EGIZAN

USTEAK USTE

GURE TEKNIKARIAK

Udal Egitamu Orokorren Aurrelaburpena jaso berria dugu Arrasateko biztanleok, eta bertan ezagugarri nagusienak hedatuz agertzen zaigu Hirigintza, Obra eta ingurugiro saila.

Orain urte batzuk, Udaletxe, Ahaldundi e. b.ekin, nik behintzat, izandako esperientzia emanen da orain ere?: Erakundeetako Teknikoek guztiona den espazioan jarritako mugetan bizitza, bere estetika kontzeptuez, eta zerrenda luze batez esan beharrezkoak... Aldaketaren bat eskatzera agertzen direnek interes partikularra defendatzen dute (edo okerrago), baina eurek publikoa (?)... eta ez dadila zure burutik oraingoz kritikatu edo sujerentziarik etorri, orduan bere poderearen pisu guztia zure kontra eroriko da: Politikoen babesean (ez jakina?... jakin nahi eza?...). Epaitegiatar joatera behartuko zaituzte (ezer diferentea behar baduzu, noski) amai ezinezko prozedura batean sartu, eta epaia etortzen denerako dena bukatuta: arbolak botata, etxeak eraikita, bideak mendiari min emanda... Politikoa bat joan, beste bat etorri, hor diraute Tekniko Ahaltsuek, eta ez kolore batekoak ez bestekeoak, ez ditut bere lekuan jartzen ikusi. Gure Arrasate honetan azken urteetan Udaletxearekin harremanik izan duen hainbat biztanleri galde egiozue.

NEKANE SAN MIGUEL

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



JOSU TXOKOLATEGIA KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



Arku adobelatu eta apuntatua du sarrerak.



Leihoak ere bereziak ditu Gorostizak.



Salome Elkorobarrutia Gorostiza baserriko etxeko-andrea da. Bihar bertan (hilaren 22an) 84 urte beteko ditu. 34 urte zituela Pedro Bergaretxe Gorostizako semeaz ezkondu eta bertara joan zen bizi izatera. XVI. mendetik baserria zutik egoteak benetan harritzen du Salome: "baserriak ondo eraikita egon behar du, bestela ez zuen hainbeste iraungo. Arkitektu batek esan zidanez, hormen kanpoko erremateak arraultzaren zuringoaz gogortuak daude. Harea eta zuringoa nahastuta eginda daude hormak, beraz pentsatu zenbat arraultza behar izan zituzten."

Orain, berriz, aurrekaldean etxeak eraiki dituztela eta itota sentitzen da Salome: "Bista guztia kendu didate baina ez hori bakarri, airea eta argitasuna ere bai. Lehen etxe guztia lorez ingurututa zegoen eta orain atzekaldean bakarrik dauzkat. Gainera lorak ez dira lehen beste hazten. Etxez inguratuta gaude eta baserriak ingurune zabala goa behar du. Haserre nago, zulo batetan sartuta utzi gaituztelako."

Monumentu izendatu dute Gorostiza baserria

Uribarri auzoko Gorostiza baserria monumentu izendapenez euskal kultur ondarearen zerrenda orokorrean sartzea erabaki du Eusko Jaurlaritzako kultura sailak. Baserriaren balio historikoagatik eta kultura aldetik duen interesa ikusita hartu zen erabakia ekainean.

Gorostiza baserriak Ertaroko dorretxeek zituzten ezaugarriak ditu eta gainera oso ondo kontserbatu ditu urteetan zehar. Arku adobelatu eta apuntatu batez egindako sarre-ragatik, leiho bereziengatik eta oinarria ia koadratua duelako da garrantzitsua batez ere, baina ezaugarri arkitektonikoez gain, historikoki ere oso aberatsa da. Etxea noiz eraikia izan zen ziur ez jakin arren, 1530. urtean etxea bazegoela erakusten du Martin de Gorostizak, etxeko semeak, egindako hidalgia. Hasierako urtetan dorretxea izan zen baina kapera zuenez, otoiztegi funtzioa ere izan zuen. 1.700. urte inguruan Asentzio egunez egiten zen errogatiba Gorostiza

baserriko kaperatik pasatzen zen eta bertan erreztatu ondoren Udalaizera abiatzen zen. Gerrate karlistetan eta gerra zibilean ere defentsarako koartel bezala erabili zuten militarrek. Betidanik eta gaur egunera arte, familia bera sendiak bizi izan da baserrian, baina belaunaldiz belaunaldi abizen desberdinak hartuaz joan dira. Gaur egun, Bergaretxe abizena dute Gorostizakoek.

1992an Euskal Kultura Ondarearen inbentario orokorrean sartu zuen baserria Eusko Jaurlaritzak eta bi urtetan zehar ikerketak egin ondoren, Bilboko Alhondigarekin batera monumentu izendatu dute aurten Gorostiza. Gorostizako familiak bi hilabete-tako epea izan du erabakia indargabe uzteko, baina azkenean onartu egin dute, euren ustez laguntza baino esigentzia gehiago ekarriko dien izendapena. "Buruhauste handiak ekarriko dizkigu. Etxea ikusi nahi dutenei eta batez ere eskolei, bisitak modu antolatuan egitea eskatu nahi genieke".

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

TXOKO TABERNA

*Cure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak*

Txitxinpe

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Jaurlaritzaren jarrera guztiz autoritario da talde ekologistaren arabera.

Debasaren asmoa ez da errepidea berritzea, Eguzkiren ustez

Deba Garaiko Eguzki taldearen esanetan, Debasaren asmoa autopista eraikitzea da eta ez oraingo errepidea berritzea. Talde ekologistaren ustez, bi datuk erakusten dute hori horrela izango dela: "Alde batetik, Gipuzkoako Diputazioak egindako errepideen lurralde planaren aurrerapenean, 2006. urterarte Gipuzkoan zein hobekuntza egingo diren aipatzen den planean, ez da aipatzen Deba Garaiko errepidearen hobekuntza egiteko asmorik. Horretaz gain, Arrasatetik Bergararainoko autobia egiteko asmoa indargabe utzi du Diputazioak". Eguzkiren ustez, gainera, hiru proiektuak egitea (errepidea hobetu, bidegorria egin eta autopista eraikitzea) ezinezkoa da: "nondik pentsatzen dute dirua ateratzea esaten duten guztia

egiteko? IGPTan oniritzi sozial txikiena jaso zuen alternatiba bultzatzen ari da Eusko Jaurlaritza. Autopista egin nahi dute eta horren truke, sozialki hainbeste saldu duten bidegorria".

Eguzkik egindako salaketa horiei buruz galdetuta, errepidea berritzeko asmoa badutela baieztatu digu berriz ere Debasak. Prentsa arduradunaren berbetan, "proiektua bukatuta eduki arte ezin dugu inon sartu baina horrek ez du esan nahi Diputazioaren proiektutan sartzeko aukerarik izango ez dugunik, proiektuak denborarekin eraldatuz joaten dira eta". Finantziarioari dagokionez, berriz, gobernu zentralarekin negoziatzen hasiak direla aurreratu du prentsa arduradunak.

Fagor Arrasate eta Txina

Urriaren 6an Fagor Arrasatek kontratu garrantzitsua sinatu zuen Txinako merkatuaz. 2.500 milioi ptako balioa du kontratuak eta sinatutakoaren arabera, zapalgailu edo dolareak egingo ditu Fagorrek. Kontratua zehaztu eta beste gestio batzuk egin ondoren, datorren urtearen bukaeran ehundaka lanpostu sortu eta eskaria egiten hasteko asmoa du Fagorrek. Fagor Arrasate eta Txinaren arteko harremanak nahiko berriak dira. Hartuemanak joan den urtean hasi ziren eta ostean, ordezkaritza zabaldu zuen Fagorrek Txinan. Kontratu horretaz gain, gehiago ere egin nahi ditu Arrasateko enpresak.

Dirulaguntzak

Udalak 600.000 pta banatuko ditu emakume taldeen artean. Ekinek 200.000 pta jasoko ditu, Egizanek 125.000, Emakumeen Asanbladak 175.000 eta Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak 100.000 pta.



ONTZI-DENDA



Opariak

Lora artifizialak

ETA ORAIN...

Lora eta landare naturalak

(Lizentzia Ofiziala daukagu)

Bañez Doktorea, z/g San Andres auzoa Tfnoa: 79 73 90



Leku falta da Institutoaren arazo nagusiena.

Ikasle kopuruak gora egin du Batxilergo Institutoan

94-95 ikasturterako 660 ikasle matrikulatu dira Arrasateko Batxilergo Institutoan, iaz baino 60 ikasle gehiago.

Amaia Aranzabal ikasketa buruaren ustez, berriz ere batxilergoa indarra hartuz doa: "unibertsitate mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasle gehienek batxilergoa ikasten dute eta REM, berriz, teknologiaz zerikusia duten ikasketak egin nahi dituztenek. Aurten esate baterako, BBBeko lehen mailan sei gela osatu dira eta REMeko lehen mailan beste bi. Horrek erakusten du gaur egun ikasle askok aukeratzen duela batxilergoa egitea".

Horretaz gain, D ereduan (euskara hutsuz) ikasi nahi dutenen kopurua ere handituz doa urtetik urtera. Iaz 20 ikaslek hasi

zuten batxilergoa euskaraz eta aurten 41ek.

Urtetik urtera matrikulazioak gora egin duela eta, leku falta da Institutoaren arazo nagusiena. Zentruan 21 gela osatu dira eta toki ezagatik beste bi gelatako ikasleek Musakolako Herri Eskolan jasotzen dituzte klaseak. Aranzabalek adierazi digunez, Hezkuntza Ordezkaritzan planteatu dute arazo hori baina gero eta haur gutxiago jaiotzen denez, agian urte batzuk barru matrikulazioak behera egin eta ez dutela izango toki faltarik adierazi diete. Institutoan 50 irakasle daude lanean eta ikasle gehienak arrasatearrak diren arren, inguruko herrietakoak ere badaude: 55 ikasle eskoriatzarrak dira, 41 atxabaltarrak, 23 aramaiokoak, 3 bergararrak eta bakarra Gatzagakoak.

Gameikoen greba

Asteazkenean, berriz, egun osoko greba egin zuten eta goizean Bilboko makina herramientaren ferian beren protesta azaldu zuten. Gameiko zuzendaritzak 20 langileren kontratua bertan behera uztea erabaki duelako ekin diote langileek greba egiteari. Zuzendaritzaren esanetan, aurrera irteteko ezinbestekoa dute soberan dauden langileak kaleratzea.

Lapurketa

L.F.M. 20 urteko gazte arrasatearra atxilotu zuen Ertzantzak astearte gauean, Bergarako Las Piscinas tabernan lapurreta egiteagatik. Gazteak Musakolako kiroldegi inguruan aparkatua zuen autoa, barruan ostutako guztia zuelarik. Inguru hartan zebilen ertzainaren patruila batek autoa antzeman eta ertzaindegira eraman zuen. Autoa falta zitzaiola ikusirik, gazte bere kasa gerturatu zen Ertzaindegira eta bertan atxilotu egin zuten.

Laster irekitzekoa (urriaren 28an)

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA
- ANTISORKUNTZA
- MENOPAUSIA
- BULAR-PATOLOGIA
- ZIRUGIA

- HAURDUNALDIA
- JAIKO AURREKO DIAGNOSTIKOA
- ANTZUTZE KIRURGIKOA
- ANTZUTASUNA
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA


Prezio bereziak 25 urtez beherako, etxekoandre eta 3. adinakoentzat
(Lagun-Aro Asegurua, igualatorio mediko-kirurgikoa,...)

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon M^a Lili, 2 (Lasa jatetxea izandakoaren atzekaldean) ☎: 76 59 39 / 76 59 72 FAX: 76 25 72



Jexus Ezkurak eta **Rosita Ugartek** zilarrezko eztaiak ospatu zituzten irailaren 20an. Jexus arrasatearra da, Uba baserrikoa eta Rosita Garagarzakoa. Bikotea 1969ko irailaren 20an ezkondu zen Dorletan eta 25 urte



elkarrekin igaro ondoren, irailaren 24an, Garagartzako elizan zilarrezko eztaiak ospatu dituzte senitartekoekin batera. Meza ostean, familiarterko guztiek Zumelagan izan zuten bazkaria. Zorionak, bikote!



Amaia Azkargorta, 42 urteko arrasatearra izan da Hies ekimenak atera zituen errifen irabazlea. Irabazlea izan denez, Parisen asteburu bat igaroko du. Senarrak eta biek oraindik ez dute erabaki noiz joango diren, baina abenduko zubia aukeratuko dute ziurrenik Paris ezagutzeko.

Jose Rojas, Jose Antonio Diaz, Joaquin Romero, Elias Errarte, Juan Luis Rodriguez, Cristian Eriz, Amaia Ugarte, Xabier Diez, Miguel Angel Outeirino, Ignacio Zeziaga, Agustin Rodriguez eta **Javier Ugartetxe**.

LABURRAK

Legebiltzarrerako

hauteskundeetako Arrasateko mahaiburuak hauek izango dira: **Jose M^o Agirreurreta, Iban Ricon, M^o Isabel Carvallares, Lourdes Rincon, Arantza Gallas-tegi, Emilio Gallego, Cecilio Bercibar, Iñaki Mujika, Petra Frutos, Eugenio Duque,**

Arantzazu Prada, Jose Ramon Fernandez, Rosa Quiroja, Iñaki Ibabe, Juan Maria Palencia, J.J Etxeberria, M^o Carmen Redondo, Alberto Diaz de Ge-

reinu, Jose Rojas, Jose Antonio Diaz, Joaquin Romero, Elias Errarte, Juan Luis Rodriguez, Cristian Eriz, Amaia Ugarte, Xabier Diez, Miguel Angel Outeirino, Ignacio Zeziaga, Agustin Rodriguez eta **Javier Ugartetxe**.

Mendi taberna


MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412



LORATEGI "BAR"

Iturriotz, 7 **ARRASATE**
Tfnoa: 79 04 67



Etorkizuneko Arrasate ezagutzeko gonbitea

Udal Egitasmu Orokorra-
ren aurrerapena joan zen aste-
an aurkeztu ondoren, aste
honetan ireki da egitasmu
guzti horien berri jasotzen
duen erakusketa.

Erakusketan, koloreen
bidez eta hirigintza gaietan
aditu ez den edonork ulertze-
ko eran adierazi da leku
bakoitzerako egin asmo dena,
eta gune bakoitzari izendatu
zaion erabilpena. Hasieratik
izan da Hirigintza batzordea-
ren kezka herritarrengan gaia-
rekiko interesa eta ardura

sortzea, "batez ere inor ente-
ratu barik gera ez dadin".
Hori dela eta, planoekin bate-
ra oraingo eta lehengo argaz-
kiak jarri dira ikusgai, herri-
tarrek lekuak eta aldaketak
hobeto identifika eta uler di-
zaten.

IRADOKIZUNAK

Iradokizun guztiak hartu-
ko dira kontutan, eta banan-
banan aztertuko dira. Erakus-
ketan bertan ere badago iri-
tzia emateko aukera edo na-
hiago izanez gero, Udaletxe-

ko erregistro bidez ere egin
ahal izango da, idatziz. Era-
kusketak goiz eta arratsalde-
ko ordutegia izango du, eta
kezka edo kontsulta jakin bat
duten herritarrei hobeto aten-
ditu aldera, teknikariek ino-
teko aukera ere izango dute,
hala eskatzen dutenek.

Orain iradokizun direnak,
prozesuak aurrera jarraitu
ahala, eta bigarren erakus-
keta publikoa jartzen denera-
ko, alegazio izango dira, pro-
posamen hau hobeto lantzetik
aterako denari geroago horiek

jarri beharko zaizkio eta.

Udal Egitasmu Orokorra-
ren Aurrerapena erakusketa-
rekin batera herritarrei gehia-
go hurbiltzeko ahaleginean,
arlotan ezberdinei buruzko infor-
mazioa emango du hurrengo
zenbakietan ARRASATE
PRESSEK ere. Edozein irakur-
lek zalantzaren bat argitu,
kontsultaren bat egin edo iri-
tzia publikoki eman nahi
badu ere izango du gurean
hori egitea, erakusketa epea
helburu horretarako dago-
en arren.



*Kruz Gallastegi, 9
Bergara*

GASTON Y DANIELA
TAPICERIAS • MOQUETAS • ALFOMBRAS

☎: 76 07 37

Xabier Zubizarreta, HBko Gipuzkoako zerrendaburua



**BAIEUSKAL
HERRIARI**
abertzale eta ezkerzale

Bozkatu
HERRI BATA SUNA

Futbito Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde Aurk.	Guzt.	
LENIZ GARAGAR.	2	2	0	0	9	1	4
SALENKO	2	2	0	0	13	2	4
LOS DALTON	2	2	0	0	15	7	4
BUKANAK	2	2	0	0	12	6	4
ZULOAK	2	2	0	0	9	7	4
ADELAIDA HAIZEA	2	1	1	0	11	7	3
ZOTZ	2	1	1	0	7	5	3
FOSFOROS	2	1	0	1	9	3	2
HIREI	2	1	0	1	21	8	2
GANBELAS	2	1	0	1	9	5	2
ATERPE	2	1	0	1	9	8	2
STRAUSS	2	1	0	1	8	8	2
ARRASATE KIROL.	2	1	0	1	11	10	2
FRAGUEL GOL	2	0	1	1	8	10	1
EZTANDA EGIN ARTE	2	0	1	1	4	21	1
ASTOEN VILLA	2	0	0	2	8	14	0
KRISKIBALDA	2	0	0	2	3	10	0
INSERT COIN	2	0	0	2	1	7	0
ILUNA TABERNA	2	0	0	2	2	7	0
BAYER LENITZ	2	0	0	2	1	14	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde Aurk.	Guzt.	
TRIKITI	2	2	0	0	16	3	4
TXEYENEX	2	2	0	0	20	5	4
LOS DIMY	2	2	0	0	15	5	4
PETROLEROS	2	2	0	0	13	5	4
BERANGO	2	2	0	0	7	3	4
ARRAS. ZOO	2	1	1	0	12	4	3
UGLYS	2	1	1	0	12	6	3
S. UGARTE	2	1	1	0	10	7	3
NUEBO TAB	2	1	1	0	8	7	3
PEPELUS	2	1	0	1	6	7	2
TOVARITX	2	1	0	1	5	8	2
NO COMENT	2	1	0	1	6	11	2
DANOK LAG	2	0	1	1	7	8	1
MONTERREY	2	0	1	1	5	7	1
ORKATZ	2	0	0	2	6	11	0
ANBOTOSTE	2	0	0	2	6	14	0
TOTEM	2	0	0	2	4	10	0
PUB PEOPLE	2	0	0	2	5	14	0
LA BANDA	2	0	0	2	6	23	0
EZKINAKO	2	0	0	2	2	13	0

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde Aurk.	Guzt.	
IRATI S.T.S	2	2	0	0	16	1	4
AUT. MURU	2	2	0	0	12	2	4
EQUUS	2	2	0	0	10	2	4
KOKA JUNI.	2	2	0	0	8	3	4
ORLANDO	2	2	0	0	10	4	4
NABARROS	2	2	0	0	9	5	4
EXCA. LETE	2	1	0	1	8	3	2
BODISCA	2	1	0	1	8	6	2
LORATEGI	2	1	0	1	4	4	2
ARTZANKOS	2	1	0	1	8	9	2
FRANTZISK.	2	1	0	1	5	6	2
KE OXTIAS	2	1	0	1	8	10	2
PERRAHOTSA	2	1	0	1	6	8	2
LEYA	2	1	0	1	6	10	2
FOT. IMAGEN	2	0	0	2	6	10	0
D.K.B	2	0	0	2	3	7	0
POTROSORRI	2	0	0	2	6	14	0
BANEUKO	2	0	0	2	2	6	0
JOTAKABAU	2	0	0	2	3	13	0
TXOKO TAB.	2	0	0	2	1	16	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde Aurk.	Guzt.	
ARGI IBILI	2	2	0	0	15	2	4
OJO VISORE	2	2	0	0	8	4	4
LOS HEREDIA	2	2	0	0	10	6	4
A.C SURCOS	2	2	0	0	11	7	4
SOKOAKOAK	2	1	1	0	6	3	3
D.AIRIZTU	2	1	0	1	10	6	2
ALTZA PORRU	2	1	0	1	6	4	2
KAKAJURI	2	1	0	1	6	4	2
BORROCK'N	2	1	0	1	7	5	2
BUTANGAK	2	1	0	1	7	5	2
MIKELOS	2	1	0	1	11	10	2
SUKAR	2	1	0	1	7	8	2
ANORTHOSIS	2	1	0	1	4	5	2
LAUTHER.	2	1	0	1	7	9	2
B.Z SISTEMA	2	1	0	1	3	5	2
TRNKOTEAK	2	0	1	1	3	9	1
MOTZ	2	0	0	2	4	9	0
RESAKAS	2	0	0	2	5	12	0
TEODOLITO	2	0	0	2	3	11	0
ELISABETH	2	0	0	2	2	11	0



HITZALDI MAHAINGURUA

GAIA: Noruntz doa Kuba?

EGUNA: Urriak 25 asteartea.

ORDUA: Arratsaldeko 7etan.

TOKIA: Monterron jauregia.

HIZLARIAK:

- Garikoitz Agote, ekonomilaria
- Alberto Inurrieta, brigadista





Datorren larunbatean, derbi interesgarri bat izango dugu Zaldibarren. Zigarrolako bi taldek elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak. La banda eta Totemen arteko partidua bizia izango da oso. Irati STS eta Excavaciones Letenen arteko norgehiagokak ere, emango du zer esana.

BELARRIRA

◆ **Zigorra:** Arrasate zoo taldeak zigorra jaso du, larunbatean goizeko 10etan Insert Coin eta Zotz taldeen arteko partidua epaitzera aurkeztu ez zelako. Zigorra jaso duelako, bi puntu gutxiagorekin geratutako da Arrasate Zoo taldea.

◆ **Kanporatua:** Fosforos taldeko atezainari, Candi Fernandezi, 2 partiduko zigorra ezarri diote antolatzaileek, larunbatean jokaturako partiduan epailearekin izandako gora-beherengatik. Jokalariak epailearekiko erakutsitako jarrera itxusia zalatu asmoz hartu dute erabakia antolatzaileek.

◆ **Zigorrek noiz:** Epaitu beharreko partiduetara azaldu ez direlako, bi taldek jaso dute zigorra dagoeneko. Zigorren ondorioz egiten den puntu kenketa lehen fasearen bukaeran egingo dutela adierazi digute antolatzaileek.

EMAITZAK

A Taldea

- Astoen Villa 4 - Aterpe 6
- Bukanak 4 - Kriskibalda 2
- Salenko y konpañia 7 - Bayer Lenitz 1
- Fosforos 2 - Straus 3
- Los Dalton 9 - Iluna taberna 2
- Ganbelas 1 - Cerveceria Leniz 5
- Insert coin 1 - Zotz 3
- Adelaida- Haizea 7 - Hirei 3
- Franguel Gol 3 - Eztanda egin arte 3
- Zuloak 5 - Arraste Kirolak 4

B Taldea

- Pepelus 1 - Berango sukaldeak 4
- Orkatz 3 - Petroleros 6
- Anbotoste 4 - Los Dimy 7
- No Comment 5 - Monterrey 3
- Arrasate Zoo 10 - Ezkinako hontzak 2
- Tovarixt 2 - Uglys txinato 8
- Danok Lagun 3 - Txeyenex 4
- La BAnda 4 - Suministros Ugarte 7
- Totem 4 - Nuevo taberna 5
- Pub People 3 - Trikiti 11

C Taldea

- Nabarros 6 - Ke Oxtias! 3
- Lorategi Potroak 2 - DKB 1
- Bodisca 3 - Perrahotsa 4
- Leya 1 - Autos Muru 8
- Artankos Udalaiz 7 - Potrosorri 5
- Excavaciones Lete 1 - Equis 2
- Txoko taberna 0 - Irati STS 8
- Jotakabau 2 - Orlando Piratas 5
- Baneuko 1 - Frantzkener 3
- Foto Imagen 2 - Koka Juniors 5


D Taldea

- Sokoakoak 2 - Tronkoteak 2
- Elisabeth 1 - Diego Antonio Iriztu 7
- Los Heredia 5 - Borrock 'n Roll 3
- BZ Sistemas 3 - Butangak 1
- Teodolito 1 - Altxa Porru 5
- Ojo Avisore 5 - Motz 3
- Anorthosis 0 - Kakajauri 4
- AC SURcos 7 - Mikelos 5
- Resakas 3 - Lautherbrunnen 4
- Sukar 0 - Argi Ibili 7



**AGRICENTRO
OTXOA, S.L.**

- **NEKAZARITZA:** haziak, ongariak, produktu agrokimikoak, e.a...
 - **ABELAZKUNTZA:** pentsuak, botikak, abereentzako materiala, baserriako tresneria, e.a...
 - **LORAZAINTZAKO PRODUKTUAK:** ureztatzea, keramika, ongariak, e.a...
 - **ETXEKO ANIMALIENTZAKO JANARIAK:** (txakur, katu, txori eta arrainentzakoak)
- Musakolako Industrialdea, z/g ©: 79 17 79 / 79 86 70
ARRASATE



Bidaia

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 22

Zaldibar

- 8.50 Atza Porru - BZ Sistemas
- 10.00 Adelaida haizea - Fraguél Gol
- 11.00 Anbotoste KT - Monterrey Taberna
- 12.00 La Banda - Totem
- 13.00 Irati STS - Exca. Lete
- 14.00 Nuevo Taberna - Pub People
- 15.00 Arrasate Zoo - Uglys Txinato
- 16.00 Astoen Villa - Kriskibalda
- 17.00 Anorthosi Agudah - Mikelos
- 18.00 Danok Lagun - Suministros Ugarte
- 19.00 Arrasate Kirolak - Aterpe

Iturripe A

- 10.00 Eztanda egin arte - Zuloak
- 11.00 No Comment - Ezkiñako Hontzak
- 12.00 Koka Juniors - Ke Oxtias!
- 13.00 Orkatz - Los Dimy
- 15.00 Tovarixtx - Txeyenex
- 16.00 Los Dalton- Cerve. Leniz
- 17.00 Nabarros - DKB
- 18.00 Lautherbrunner - Sukar

Iturripe B

- 12.00 rtzankos Udalaizt - Equs BTR
- 13.00 Bukanak - Bayer Lenitz
- 15.00 Fosforos - Iluna Taberna
- 16.00 Jotakabau - Baneuko
- 17.00 Sokoakoak - Diego Antonio Iriztu
- 18.00 Argi Ibili - Tronkoteak

Igandea 23

Zaldibar

- 8.50 Lorategi Potroak - Petrahotsa
- 10.00 Txoko Taberna - Orlando Piratas
- 11.00 Insert Coin - Hirei
- 12.00 Elisabeth - Borröck´n Roll
- 13.00 Salenko y Konpañia - Strauss

Iturripe A

- 9.00 Trikiti - Berango Sukaldeak
- 10.00 Los Heredia - Butangak
- 11.00 Leya - Potrosorri
- 12.00 Pepelus - Petroleros
- 13.00 Teodolito - Motz

Iturripe B

- 9.00 Bodisca - Autos Muru
- 10.00 Ojo Visore - Kakajauri
- 11.00 Frantziskaner - Foto Imagen
- 12.00 AC Surcos - Resakas
- 13.00 Ganbelas - Zotz



308 gol 2. jardunaldian

Zaldibar txapelketako 2. partidua jokatu ziren asteburuan. Jardunaldi nahiko lasaia izan arren, egon zen zigorrik jaso zuenik eta baita epailearekiko jarrera txarra erakusteagatik 2 partidutan etxean geratuko denik ere. Bi zigor hauez gain, arazorik gabe bukatu zen txapelketako 2. erronka. Jardunaldian sartu diren golei gainbegirada emanez, 4 multzoetatik B taldean sartu da golik gehien, 96 guztira. A taldekoak ere ez dira makal ibili, 70 gol lortu dituzte eta. C taldekoek 69 golek konformatu behar izan dute eta konparaketak eginez, petraltxoenak D taldekoak izan dira, 68 golek. Guztira 308 gol sartu dira. Jokatu diren bi jardunaldietan, Hirei taldeak lortu du golik gehien,

21 gol sartuz eta atzetik Txeyenex taldeak jarraitzen dio, 20 golek.

Golak alde batera utziz, esan beharra dago azaroko zubian txapelketak ez duela etenik egingo eta normaltasun osoz jokatuko direla neurketak. Partidu guztiak Zaldibarren izan daitezen ahaleginak egiten ari dira. antolatzaileak. Bestalde, pentsatzen ari da antolakuntza abenduko zubi luzearen aurrean zer egin, neurketak jokatu edo ez. Jardunaldia jokatu ez balitz, txapelketa asko luza daitekeela diote. Baina, jokatu ezker eta 9 eguneko zubia egon behar dela kontutan hartuta, jokalaria asko kanpora joango den beldur dira. Azken erabakia datorren astean hartu beharko dute antolatzaileek.




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

EArekin GOBERNU ABERTZALEA



e u s k o a l k a r t a s u n a



Deñon zerbitzurako izango den Gobernua behar dugu, euskal ikuspegi abertzale batetik benetazko zuzendaritza politikoa burutuko duena, Euskadiren eraikuntza nazionalean aurrera eginez, gure herritarren arazo larrienei irtenbidea eskaintzeko.

Horretarako Eusko Alkartasunak hauxe proposatzen du:

- Autogobernuan tinko aurrera egitea, egitura politikoa eraberrituz, gure gizartearen arazoei geure irtenbideak eman ahal izateko.
- Gizarte eta politika indarren arteko akordioa bultzatzea, indarkeriari amaiera emanez Euskal Herrian adiskidetzatza berreskuratzea lortzeko.
- Ekonomiaren berpizkundea eta enpleguaren sorkuntza eragingo duen gizarte mailako adostasun garrantzitsua lortzea.
- Gizartearen beharrei erantzuteko iharduerak garatzea, aukera izan dezagun:



- Etxebizitza arloko iharduera orokor bat burutzeko (eraikuntza, akura, gazteentzako aukerak,...).
- Osasun zerbitzu oso bat eratzeke, desentralizatua, kalitatezkoa eta berehalako arreta eskainiko duena.
- Hirugarren adinekoentzako nahikoa laguntza-zerbitzu osatzeko.
- Arreta handiagoa behar duten taldeentzako (drogamenpekotasuna, alkoholismoa,...) iharduera bereziak antolatzeke.
- Euskararen aldeko ekintza eraginkorrak sustatzeko.
- Gure gizarteak dituen prestakuntza beharrei erantzungo dien Hezkuntza Sistema eratzeke, ikerketari garrantzi berezia eskainiz.

Hori guztiagatik, Eusko Alkartasunak Gobernu abertzalea eta **zuzena** osatzeko proposamena egiten du, diru xahuketaren aurka zuhertasunez jokatzeko eta burokrazia antzuzaren aurka **eginkortasunez** aritzeko.



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera:

Eugenio Iriondo, María Carrera, Eneko Oregi, Isabel Gallastegi, Txema Pedruzo, Nekane Alzelai, Izaskun Urrutia, Iñaki Galdós, Sabin Intxaurre, Inaxio Oliveri, Patxi Ormazabal, Jasone Irraragori, Carlos Garaikoetxea, Igone Martínez de Luna, Rafael Larreina.

Gobernu Zuzen eta Eginkorra.

Behartsuen patua: karitatea lanaren orde

Itxaro Zubillaga

Gero eta eskeko gehiago ikusten dugu kaleetan, etxez etxe ibiltzen diren pertsonak edo kale ezkinetan diru eske dabiltzanak edonon aurki ditzakegu. Baina pertsona guzti horiek dute janaria eta etxebezitza edukitzeko eskubidea. Eskubide hauek bermatzeko, txiroenei eta inolako diru sarrerarik ez dutenei laguntzeko, dirulaguntzak egoten dira herri guztietako Udaletan eta Caritasek ere pertsona hauei laguntzeko baditu baliabi-deak.

Eusko Jaurlaritzak duela bost urte t'ardi jarri zuen abian Pobreziaren Aurkako Osoko Planaren barruan 2 laguntza mota zehazten dira. Batetik, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera dago, bizi izateko oinarritzko premiei erantzuteko nahikoa diru ez duten pertsonentzat. Bestetik, gizarterako larrialdi egoeretarako laguntza oinarritzko gastu zehatzei aurre egiteko. Laguntza hauek arautzea Jaurlaritzaren esku dago eta gestioa Diputazioak eramaten du; Udalak ostera, zuzeneko lana egiten du, hau da, jarraipena eta kontrola.

Arrasateko Gizarte ongizateko Udal arduradunek aurtengo 129 esakakizun jaso dituzte, iaz baino 13 gehiago. Eskakizun horietatik hamarrek Gizarteratzeko gutxienezko diru-sarrera jasoko dute, urte osoan zehar hilero



Gero eta eskale gehiago ikusten da Arrasateko kale ezkinetan.

hilero ematen den diru kopurua; adibide bat jarritz, pertsona bakarra bazara eta inolako diru sarrerarik ez baduzu, 37.780 pezetako diru laguntza jasoko duzu. 2 seme-alabez osatutako familia batentzat 64.226 pezeta izango lirateke. Diru kopuru hauek inolako diru sarrerarik ez duen jendearentzat Eusko Jaurlaritzak finkatutako kopurua dira, irabaziren bat izanez gero, ezarritako zifra horretaraino osatu egiten zaio kopurua. Beste 53 eskakizunek larrialditarako laguntza jasoko dute: behin ordaintzen den diru kopurua izaten da, behar zehatzetarako, ohizko etxebizitzako gastuak, dentistak... Esandakoaz gain, 63 eskatzailek laguntza biak jasoko dituzte.

Arrasateko Udalak aurtengo ahalegin garrantzitsua egin du, aurrekontuetatik 15 milioi pezeta zuzendu ditu

eta pobreziaren arazoari laguntzeko. Ahalegin handia eta beharrezko, laguntza eskatzera gero eta jende gehiago joaten dela eta Diputaziotik eta Jaurlaritzatik datozen laguntzak asko murriztu direla kontutan hartzen badugu.

LAGUNTZA JASOTZEKO ZER EGIN

Laguntza hauek jasotzeko zenbait baldintza bete behar da. Batetik, etxe bakoitzeko egoera ekonomikoa hartzen da kontutan. Etxean legez ezarritako dagoen diru kopurua baino gutxiago sartzen bada, laguntza motaren bat jasotzeko eskubidea dago; langabezia egotea eta Arrasaten erroldatuta egotea dira betebeharreko beste baldintzak. Honez gain, "Gutxieneko diru sarrera" jasotzeko, gutxienez 3 urtez Euskal Autonomi elkartearen bizi izatea eta 25 urte baino gehia-

go izatea edo seme-alabak edukitzea nahi eta nahiezkoa da. Udalak ematen duen laguntza jasotzeko, berriz, 18 urtez gorakoa izatea.

Laguntza eskatzera doan edonork ondo justifikatu behar du bere egoera. Eskakizunak jaso ondoren egoera aztertu eta beharrezko trami-teak egiten dituzte Udaleko arduradunek, pertsona horri dagokiona zuzentzeko. Udaletik aipatu dugutenez, orain arte ez dute inolako arazorik izan eta nahiko ondo kontrolatu ahal izaten dituzte eskuartera iristen zaizkien eskabideak: "gugana gezurretan etortzen badira, lehenago edo beranduago harraipatu egiten ditugu, hilero hilero justifikante guztiak ekarri behar izaten dituzte eta". Aipatutako laguntzak nahiko urriak diren arren, larritasunetik irteteko balio izaten dute.

Caritas: "azken urtetan ez dugu pobrezia hazkunderik igarri".

Arrasateko Caritas taldekoek, probreziaren egoerari dagokionez Arrasate nahiko herri pribilegiatua dela esan digute, "Gipuzkoako beste herri batzuetan bizi den egoera kontutan hartzen badugu, gure zonaldea nahiko ona da

eta azken urtetan ez dugu pobrezia hazkunderik igarri". Dena dela, "gazteen langabezia" da taldekoak gehien kezkatzen dituenena. Caritasek astearte eta ostiraletan zabaltzen ditu ateak eta 40 lagunetik 60ra joaten zaizkie

etengabe, diru laguntza eskatzera edo hitz egiteko lagun baten bila. Caritasek bi laguntza mota ematen ditu: dirulaguntza eta laguntza moral: "Caritas harrera etxea da, beraz, norbait arazo batekin badator eta hustu nahi badu,

entzuteko gertu egoten gara". Dirulaguntza emateko orduan, Caritasek baremo bat dauka eta horren arabera banatzen ditu laguntzak. Pertsona batek Udaleko laguntza jaso arren bizi izateko lain ez badu, Caritasek laguntza txiki bat eman diezaioke. Kasu berezietarako beste laguntza batzuk ditu. Esaterako beharrezko baldintza guztiak betetzen ez dituelako, norbaitek Udaleko laguntza jaso ezin badu, laguntza jasotzeko baldintzak bete arte diru laguntza ematen dio Caritasek. Caritasek ez du laguntza publikorik jasotzen baina dirua lortzeko beste iturri batzuk ditu. Eizan urtero 4 dirubilketa zuzentzen dira. Gabonetan eta Aste Santuan egiten den kolekta, Caritasek doan jende behar suarentzat izaten da. Apirilean eta irailean jasotako dirua, langabezian egonda Caritasek joaten diren pertsonentzat izaten da. Esandakoaz gain, bazkideengandik eta herriko jendeak emandakotik ere lortzen dute dirua.



Dirua eskatzeko beste era bat, zerbait egin arren dirua eskatzea da, argazkikoa musika jotzen ari da.

Eskekoen aurrean zer egin?

Oinarrizko premiak, etxebizitza eta janaria izateko eskubidea pertsona guztiak duten arren, eskekoak ikusten ditugu kalean sarri. Pertsona hauek kanpotarrak izaten dira gehienetan. Baina edozein arrasatearrek Arrasaten izan ditzakeen laguntzak dituzte euren herrietan, laguntza publikoak guztientzako dira eta. Gizarte Ongizateko Udal arduradunek eta Caritasekoek pertsona hauei dirua emanaz ez dela ezer konpontzen diote, eta jendea horrelako egoeran dagoela ikustea gogorra egiten bazaigu ere, hobe dela izan ditzaketen laguntzen gainean informazioa ematea, dirua ematea baino. Gainera esan beharra dago eskean ibiltzea legez ez dagoela onartua.

INDIJENTEEN ARAZOA

Aipatutako laguntzaz gain, Arrasateko Udalak diru kopuru bat onartu berri du pertsona indijenteak, kalean bizi direnak, hiltzen badira lurperatzea ordaintzeko. Legez horrelako kasu bat agertzen denean, gastu guztiak euren gain hartzeko obligazioa dute Udal guztiak. Dena dela, Ongizate sailekoek gatxa ikusten dute horrelako kasu bat gaur egun gertatzea, 65 urtez gorako pertsona guztiak pensio bat jasotzeko eskubidea dute eta, pensio ez atributiboa deitua. Onartutako diru kopurua indijenteen arazoa estaltzeko erabiliko da eta baita kanpotar bat Arrasaten hil ezkerro eta senitartekorik agertuko ez balitz, lurperatzearen kargu egiteko ere.

E
skatzen
ibiltzea legez
ez dago
onartua.

Txaro Iraeta, Almeneko zuzendaria

Pertsonak hezitzearen ardura

ALMENeko zuzendari-tzan kezka berezia izan dute beti ikasleen heziketa osoaz, pertsonen garapen osoaz. Asmo horretan pausoak ematen hasteko, inkesta sakon bat egin du Javier Elzo soziologoaren taldeak ia mila ikasleren artean. Gazteen harreman mundua, familiako giroa, euren baloreak... ezagutu eta balorazio bat egingo da, datorren astean emaitzen aurkezpena egin ondoren.

— Nondik nora sortu zen asmoa?

— Etengabeko kezka izan dugu horrekin. Ikastetxe baten oinarrizko betebeharrak pertsonak hezitzea da, ez alde akademikotik bakarrik; gure hezkuntza proiektuan hiru ardatz nagusi jasotzen dira: ikaslearen nortasunaren garapena, ingurunearekiko sentikorra izatea eta gizartearen integrazteko, jokatzeko eta hobetzeko gai izatea. Gure ikasleengan balore pila bat ikusten dugu, baina horiekin batera hutsune eta kezka batzuk ere bai: ilusio falta handia, agresibitatea, alkoholaren arazoa... eta aspaldian lantzen ari ginen. Ikerketaren konstatazioak zergatiak ezagutzera eraman behar gaitu, txikitatik datozen arazoak direlako.

Guraso eskolan eta gurasoen bileran azaldu eta era-

bakia hartu zen. Hezkuntza prebentiboa egiteko oinarriak jarriko ditu ikerketa honek eta gero lanari ekiteko konpromezua eskatuko du.

— Zer galdekizun mota egin da?

— Familia eta haurra edo gaztearen arteko giroa, harremanak, komunikazioa aztertuz eta bere inguruaz gazteak zer balorazio egiten duen ikustera zuzendu da galdekizuna. Gazteen bizimodu planteamendua aztertzen da, aisialdia disfrutatzen duten moduez eta abar. Alkoholera ere kezka handia da, baina galdeketa ez da horretara zuzendu, gehiago interesatzen zaigu sakonago joatea.

6. mailatik 20 urtera arteko 950 ikaslek bete dute inkesta, eta Donostiako talde bat arduratu da guztiaz, Almen kanpo geratuta.

Gurea bailarako zentrua izanik, emaitzak alde horretatik ere oso adierazgarriak direla uste dut, herri guztietako jendea dagoelako eta lagin esanguratsua izan daitekeelako. Egileek esan digutenez, fidagarritasun eta koherentziaren erantzun dira galderak.

— Emaitzak datorren astean emango dira jakitera. Horatik aurrera zer?

— Ez dugu datuetan galdu nahi. Momentu honetako helburua egoera ezagutu, horren argazkia egin eta joerak eta



ezaguarriak zehaztu eta balorazioa egitea da; gero, gurasoei batera aurrera eramango den ekintza plana antolatuko dugu. Soziologo taldeak antzematen dituen hutsuneen garrantzia neurtuko du, beste leku batzuetako esperientziak konparatuta, horretan eskarmentu handia dute eta. Sortzen diren arazoak arabera, adinaren arabera, gurasoei egingo den lana dibertsifikatua izango da.

Konbentziturik gaude desoreka afektiboak kalean arriskuen aurrean jartzen dituela. Alkoholak hor jarraituko du, baina guretzat inportantea gure gazteak pertsona orekatuak izatea da. Arazoak hor daude, alkohola ere hor dago, baina eurek jakin dezatela guzti horren jabe izaten, disfrutatzen, desoreka afektiboaren eraginez gauza horien menpeko izan ez daitezten. Aukeratzeko gai izan daite-

zela. Langabezia ere hor dago, gazteentzat arazo latza, baina pertsona orekatu batek bizitza bere osotasunean ikusten du eta arazoak neurtu egiten ditu, eta oreka hori da garrantzitsua.

— Arazo horiek dagoeneko bizi dituzten gurasoei baino, garrantzitsuagoa izango da txikien gurasoei has-tea?

— Gure asmoa horixe da: ume txikiak dituzten gurasoei lanean hastea eta gaia- ren garrantziak ohartaraztea. Askotan gure jarreretatik ikasten dute: etxean egiten ditugun balorazioak, komentarioak eta gure bizitza jaso egiten du umeak. Arazoa sortuta dagoenean atakatea ere komeni da, baina hezkuntza prebentiboiari eman nahi diogu garrantzia, gurasoei batera, eta gurasoei euren artean. Frente askotan lan egin behar da: guraso eskolaren bitartez etxeko giroa, kanpora begira, ikastolan bertan, tutoritzan eta beste momentu eta egoera asko aprobetxatuz.

● **“Gazteek izugarriko baloreak dituzte, baina baita hutsune eta gabeziak ere”**

SAN VIATOR EGUNA urriak 21

HERRIAREKIN BATERA AURRERA EGITEN



San Viatorreko

III. Perretxiko lehiaketa

Urriaren 22an, larunbata, goizeko 10etatik eguerdiko 13tara, Sebero Altube plazan, eguraldiak laguntzen badu, eta kalistroetan laguntzen ez badu, San Viatorreko III. perretxiko lehiaketan parte hartu dutenek antolatutako erakusketa izango da.

ARRASATE PASEALEKUA, 10 Tfnoa: 79 04 11

Kirol gimnasia erritmikoko neskatilak hasi dira prestatzen

Arantzazu Zubiak eta Adelaida Silvarek gimnasia erritmikoa erakusten dute Musakolako kiroldegian. Urte dexente daramate mundu honetan sartuta eta neskatila asko pasa dira euren eskuetatik. Arrasateko gimnasia erritmikako taldeak poztasun bat baino gehiago eman dio arrasateri txapelketetan lortutako emaitzengandik



Arantzazu Zubia, argazkian ageri dena, eta Adelaida Silvar gimnasia erritmikoko irakasleak dira.

- Zenbat neska-mutil dabilta une honetan taldean?

- 60 bat neska, hala ere, ezin dezakezu ziurtasun osoz esan, duela gutxi hasi ditugu entrenamenduak eta neska berri dexente sartu da eta.

- Zein modalitate lantzen duzue?

- Kirol gimnasia erritmikoa lantzen dugu, hau da, aparatuak: pilota, maza, zinta, uztaia eta esku libreak sartzen dira gure modalitatean. Gimnasia erritmikoaren barruan beste estilo bat dago, artistikoa izenez ezaguna. Hemen zaldi-jauzia, oreka-barra, barra-asimetrikoa eta lurreko ariketak sartzen dira, besteak beste.

- Zein ezaugarri behar da kirol hori egiteko?

- Hasieran, behintzat, lan egiteko gogo. Gero betikoa, flexibilitatea, indarra, gauza asko sartzen dira jokoan. Baina, hori bai! ezaugarri bat bakarrik edukita ez duzu ezer egiten. Esaterako, neska bat oso flexiblea bada baina indarrik ez badu, sekula ezingo da urrutira heldu. Oreka bat lortu ahal izateko, ezaugarri guztiak izan behar dira.

- Zenbat urterekin etortzen dira neskek?

- Gaztetxoek 5 urtekoak dira; eurekin jolasen bidez flexibilitatea, indarra, koordinazioa eta abar lantzen ahalgintzen gara, baina asko behartu gabe. Nagusienek 15-16 urte dituzte. Zaila da 17 urtetik gorakoek gimnasia erritmikoan jarraitzea.

- Janariari dagokionez, asko zaindu behar izaten dute?

- Denetik jan behar dutela esaten diegu eta tontakerietan ez ibiltzeko. Hala ere, egunero mailotaz elkar ikusten dutenez, normala da euren artean konparaketak egitea, zein dagoen argalago, zein lodiagoa. Horrela hastea arriskutsua izan daiteke; norbait bere gorputzarekin gustora ez badago, jateari utz diezaioke eta zeozer arraroa somatzen badugu, berehala hartzen ditugu neurriak.

- Neska hauekin kontrola, beraz, eramaten duzue?

- Urtero mediku azterke-

tak egiten ditugu taldeko neskekin. Guk sekula ez diegu pisua jeisteko agintzen, baina mediku azterketan sendagileak norbaitek pisua jeitsi behar duela gomendatzen badigu, gurasoekin egoten gara. Erabaki hauek sendagileak aginduta hartzen dira eta ez guk esanda.

- Zein txapelketetan hartzen duzue parte?

- Eskola mailako txapelketetan. Hauek adinaren arabera banatzen dira: benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak.

- Noiz hasten dira txapelketak?

- Euskadiko txapelketara joateko sailkatze fasea maizta aldean hasten da. Sailkatu ezkerko Gipuzkoako txapelketa gaingitu behar dugu Euskadikora joateko. Lehenengo hiruak sailkatzen dira eta horiek Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera izango dute.

-Gogorra da gimnasia

erritmikoa egitea?

- Gogorra da, baina neskatilak gustora etortzen dira. Egunetik egunera ariketak egiteko orduan bakoitzak bere aurrerapena ikusten du, ariketak gero eta hobeto egiten dituela ohartzen da eta hori neskato hauetzat poztasun bat da. Beraz, gogorra da baina gustora bazatoz, ez da hain nekagarria egiten.

- Nola banatzen dituzue klaseak?

- Ikasturtearen hasieran eta bukaeran entrenamenduak asko aldatzen dira. Bukaeran txapelketetan sartuta egoten gara buru-belarri eta beste modu baten egituratu behar izaten ditugu entrenamendu orduak. Klase normal batean lehenengo ordu erdian beroketa egiten dugu. Beroketa saioan beste kirol batzuk egiten ditugu askotan, hala nola, futbola edo saskibaloia. Gero flexibilitatea lantzen dugu eta aparatuei ere beste tartetxo bat uzten diegu. Txapelketetan sartuta gaudenean, aparatuekin gehiago egiten dugu lan.

Arrasatearrak maratoian primeran

PENALTIAK

● **Mondra taldeak puntu bat erdietsi zuen Ondarrura egindako bisitan. Ondarru eta Mondra izan genituen aurrez-aurre igandean, talde biek gol aukera ugari izan zituzten baina azkenean banako berdinketa izan zen azken emaitza. Ormazak penalti bati esker aurretik jarri zuen Ondarru 27. minutuan. 2. zatiko 38.ean Iker Balzategik lortu zuen berdinketaren gola. Larunbatean, Mondra eta Basconiak neurtuko dituzte indarrak Atxabalpen arratsaldeko 4etan. Basconia sailkapeneko goi aldean dago sailkatua 9 puntu eta positibo batekin. Mondra, berriz, erdikaldean 8 puntu eta 2 positiborekin.**

Partidu horretan izako denboraldiko jokalaria onenak saria jasoko du, Carpinteria Martinezen eskutik. Honako honetan Iker Balzategi izendatu dute 93-94 denboraldiko jokalaririk onena. Era berean, partidu hasieran, Joseba Larrinaga korrikalari atxabaltarrak omenaldi txiki bat jasoko du Mondra taldekoen eskutik. Bestalde, esan beharra dago, Canal pluseko kamarak atxabalpen egongo direla. Telebista-kate pribatu horrek, elkarrizketa egingo dio Nedza Zivojevic entrenatzaileari eta bitartean partiduko irudiak ere hartuko ditu.

Donostiako maratoia jokatu zen igandean. Arrasatek 25 lagunek hartu zuten parte. Guztien artean M^o Jose Gilen lana azpimarratu behar da 10 minututan hobetu zuen eta bere marka. Luis Maria Ugartek, berriz, aurreko bere marka 7 minututan jeistea lortu zuen. Arrasateko rekord berria emaku-

me mailan, Pilar Valdezatek lortu zuen 3 ordu 25 minutu eta 30 segunduko denbora eginez. Aurreko denbora 3 ordu 28 minutu eta 58 segundutan zeukan. Crispin Valdezateren lana ere aipatu behar dugu, 58 urterekin denbora ezin hobea lortu zuen eta: 3 ordu, 31 minutu eta 58 segunduko denbora.



Arrasatek 25 pertsonak hartu zuten parte maratoian.

SAILKAPENA

Cesar Diez	2, 39, 18
L.M Ugarte	2, 41, 32
J.L Ugalde	2, 52, 47
Mikel Hierro	2, 54, 49
Josu Ugarte	2, 57, 17
Jabi Zubiaga	3, 05, 59
Josu Gascon	3, 06, 24
J.J Ansuategi	3, 08, 36
Jon Zubizarreta	3, 10, 54
Jose Perez	3, 10, 57
Pilar Valdezate	3, 25, 30
Iñaki Jauregi	3, 29, 13
Crispin Valdezate	3, 31, 58
M ^o JOse Gil	3, 38, 05
Manuel Silvar	3, 38, 05
J. A Barberan	3, 46, 00
Jose Errasti	3, 55, 07
J. M Larrañaga	4, 10, 04

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Ondarru 1 Mondra 1
Emakum: Mondra 6 Elgoibar 1
2. Erregionala: Urki B 2 Arrasate 5
Ohorezko liga: Mondra 4 Aurrera 1
Jubenilak: Urki 2 Mondra 5
1. Kadeteak: Aizgorri 2 Mondra 7
2. Kadeteak: Eibar 4 Arrasate 1
Infantilak: Arrasate 0 Tolosa 2
Hurrengoak:
3. Maila: Mondra - Basconia.
Larunbata 4etan Atxabalpen.
Emakum: Intxaurri - Mondra. Larunbata 4etan
2. Erregionala: atsedena.
Jubenilak: Betionak - Mondra. Igandea 5.15etan
1. kadeteak: Arrasate - Anaitasuna.
Larunbata 11.30etan.
2. kadeteak: Arrasate - Eibartarrak.
Igandea 11.30etan.
Infantilak: Urki - Arrasate. Igandea 11etan.

Futbito

Lehen maila: Sestao 10 - Arrasate 2

Arabako preferentea: Arrasate 8 - Betikoak 7
Hurrengoak:
Lehen maila: Arrasate - Tizona.
Igandea 12etan Iturripen.
Arabako preferentea: Txanogorritxo - Arrasate.

Eskubaloia

1. territoriala: Zumarraga 23 Arrasate 19
Jubenilak: Donibaneko 17 Arrasate 12
Hurrengoak:
Estatuko 1. maila: Arrasate - Zarautz.
Larunbata, 6.30etan Iturripen.
Territorial 1. maila: Arrasate - Pasaitarra. Domeka, 12etan
Musakolan.
Jubenilak: Arrasate - Leizaran.
Larunbata, 4etan Iturripen.

Saskibaloia

EBA liga: Urbina-Maltzaga 76 Señorior Zuasti 62
Hurrengoak:
EBA liga: Burgos - Urbina-Maltzaga.

Rugby-a

Lehen maila: Unibertsitarios - Arrasate.

Pilota

Kadeteak: Arrasate 13 Zumarraga 22
Jubenilak eskuz binaka: Arrasate 22 Idiazabal 12
Juniorkak: Segura 22 - Arrasate 17
Nagusiak eskuz banaka: Aretxabaleta 18 Arrasate 11
Nagusiak eskuz binaka: Elgeta 22 Arrasate 21
Hurrengoak:
Kadeteak: Arrasate - Eskoriatza.
Larunbata 11etan Iturripen.
Juniorkak: Arrasate - Azpeitia.
Larunbata 11etan Iturripen.
Jubenilak eskuz banaka: Elgeta - Arrasate.
Jubenilak eskuz binaka: Azpeitia - Arrasate.
Nagusiak eskuz banaka: Beasain - Arrasate.
Nagusiak eskuz binaka: Antzuola - Arrasate.


ARAMAIOKO "DUKIENA" JATETXEAK SUKALDARI BAT BEHAR DU.

Harremanetarako dei egin 945-44 50 86 tfnora.

Unai Torres

Informatiko-aurkezle-antzerkilaria

Informatika ikaslea baina antzerkilari apasionatua. Duela aste gutxi Madrilen izan zen bere debuta Maite Agirrek zuzendutako "Crónicas de Motel" antzezlanean eta egun hauetan Donostiako Victoria Eugeniako karteleran dago. ATBn egindako saioengatik herrian ezaguna, telebistan ematen duen itxura ez dela benetakoa dio.



— Nolatan informatika ikasten, eta orain antzerkian debuta?

— Selektibitatea egin ondoren, ikasketekin jarraitu nahi nuen eta informatika aukeratu nuen. Oraindik ez nuen antzerkiaren mundua ezagutzen; hori gero etorri zen, Donostian nengoela.

— Informatika ez omen duzu oso gustoko. Ez daukazu informatika utzi eta guztiz antzerkira dedikatzeo asmorik?

— Atsegin dut, baina ez lanbide moduan, hobby moduan baizik. Antzerkiaren mundua oso zaila da eta gosez hiltzeko arriskua dago.

— Eta ez du merezi benetan atsegin duzuna egiteagatik "gosez hiltzeak"?

— Aukeratu beharrean aurkitzen banaiz, ikusiko dut baina momentuz ez nago egoera horretan, biak batera eramane ditzaket eta. Hau da,

niretzat informatika "komodin" bat da; bata ez badabil, bestea daukat.

— "Crónicas de Motel". Argumentua?

— Antzerki obra bat prestatzen ari diren aktoreen arteko tirabiren istorioa da. Ez da oso obra arrunta, bi istorio kontatzen dira batera: Alde batetik montatzen ari diren obraren inguruko istorio bat eta aktoreen arteko amodioen eta gorrotoen inguruko beste bat.

— Zer esan dezakezu zuzendariari buruz?

— Zuzendaria Maite Agirre da, antzerkiaren munduan urte pila daramatzen zuzendari eta aktorea. Iaz monologo bat prestatu zuen, "Molly Bloom", eta oso kritika onak jaso zituen.

— Zein da zure papera?

— Antzezlanean lan egiten duen extra batena. Maite Agirre, zuzendaria izateaz gain, obrako protagonista ere bada eta ni berarekin dabilen mutila naiz. Oso istorio gogorra da. Nire pertsonaiak, Yurik, emakume normal batekin dabilela uste du, baina gero konturatuko da emakume horren atzean izugarriko historia garratza dagoela.

— Zure lehen debuta izan zen Madrilan. Zelakoak izan ziren eszenatokira irten aurretiko bost segunduak?

— Antzeppenaren aurretiko ordubeta gure kasa ibiltzeko uzten digu Maitek, kontzentratzeko eta guzti hori. Edozein modutan, lehenengo egunean arazo batzuk egon ziren eta ezin izan genuen entsaio orokorrik egin,

beraz, denok geunden urduri samar: Irten aurretik bastidore artean nengoen nire sarreraren zai, takikardiak jota! Horiek izan ziren momentu larrienak.

— Zer diote zure gurasoek guzti honetaz?

— Informatika utziko dudan beldur dira, baina mila aldiz esan diet ez daukadala ezer uzteko asmorik. Azkenean, konbentzitu egin direla uste dut. Edozein modutan, "Crónicas de Motel" honen kontuekin, pozez zorutzen daude.

— Telebistan lan egiteak lagundu dizu antzerkirako?

— Alderantziz: Antzerkian lan egiteak telebistarako lagundu dit. ATBn egin nuen lehen programa "Larrugorritan" izan zen eta orain egiten dudanarekin "Kukaratxa Motel"ekin konparatuz, askoz hobeto ikusten dut nire burua, orain.

Dena dela, aurkezten ari naizela aktuatzen nabilela iruditzen zait; zoritxarrez, nik ez daukat hain umore ona.

— Non ikusi ahal izango dugu "Crónicas de Motel"?

— Hil honen 21 eta 22an estreinatuko dugu Donostian, Victoria Eugeniaren. Gero, azaroan Donostian egingo den antzerki maratoin ere parte hartuko dugu eta hor erabakiko dira gainontzeko aktuazioak.

•••••
"Irten aurretik, bastidore artean nengoen nire sarreraren zai, takikardiak jota!"

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

Olarte, 30 etxabea.
 Tfnoa: 79 77 11
 Faxe: 79 77 11
 ARRASATE
 Postakutxa: 118

J. R. Garaik Vilallongaren "Fiesta" liburuaz: "Ez du Arrasateri buruz egia esaten"

Jose Luis Vilallongaren "Fiesta" nobelan oinarrituta Oñatin grabatzen hasi diren filmeak, polemika sor dezake.

Lehenengo eta behin, Vilallongak bere nobelan, gerrate zibilean frankisten bandoan borrokatzen duen gazte espainiar baten istorioa kontatzen duela jakin behar du "Fiesta" irakurri ez duen orok.

J. R. Garaik, "Oktubre" taldeko (1987an "1936: Belaunaldi Etena" liburua sortu zuen taldeko) partaideak, zuzenketa batzuk egin nahi izan ditu Fiestaren gainean, bere ustez, grabatzen ari diren filmea "Fiesta" nobelan guztiz oinarrituz gero, ez baitu egia kontatuko, hau da, gerrate zibilean Arrasaten gertatutakoari buruz ez du egia esango.

"VILALLONGAK BAZEKIEN ARRASATEN BENETAN GERTATU ZENA"

J. R. Garairen ustez, "Vilallongak aurpegia edo kontzientzia garbitu nahi izan zuen nobela honen bidez". "Vilallonga ehundaka gipuzkoar hil zituzten fusilamendu pelotoiko partaide izan zela esan zidan frankistek Arrasaten fusilatu zuten gizon baten alabak" dio Garaik. "Fiesta" nobelaren 2/3 Arrasateri buruzkoak dira, "... con la puerta coronada por un escu-



Militarrak, apaizak, reketekak... gerra zibilaren garaian.

do con motivos heráldicos borrados por el tiempo..." dioen pasarteetan adibidez: Onandia etxeari buruz hitzegiten ari da, beraz, J. R. Garairen ustez, Vilallongak ondo eza gutzen zuen herria eta herrian benetan gertatu zena.

Garaik salatzen duena, beraz, Vilallongak egia ez kontatzea da. Bere ustez, idazle honek 1968an "Fiesta" idazten hasi zenean, ondo zekien gerrate zibilean Arrasaten geratu ziren pertsonak, pertsona onak zirena, inolako

delitorik sekula egin ez zutenak: "Arrasaten fusilatu zituzten 30 pertsonak, berak ondo zekien pertsona onak zirela, apaizengandik hasita azken sozialistarraino. Ononak ziren eta gaur egun herriko edozein aitonari galdetuz gero, ez dizute esango fusilatutako pertsonak txarrak zirenik, kontrakoa baizik".

"... ESOS TIPOS QUE FUSILAMOS, SON MONSTRUOS."

Beste askoren artean,



"Vilallongak "Fiesta" idatzi zuenean, ondo zekien fusilatutako 30 arrasatearrak pertsona onak zirela, inolako delitorik sekula egin ez zutenak"

honako gauzak idazten ditu Vilallongak bere nobelan: "... y debes saber que esos tipos que fusilamos son, en su mayoría, criminales comunes. Monstruos..." edo "Fusilarlos es tratarlos demasiado bien. Te lo juro".

Garaik, hitz hauen gainean, zera esaten du: "Badakigu "Fiesta" nobela bat dena, eta nobela bat ez dela gauza historiko bat, baina bera Arrasaten egon bazen, gertatu ziren gauzak ikusi bazituen eta fusilatutako pertsonak deliturik egin ez zutela bazekien, ez dago idatzi zituenak idazteko eskubiderik!"

"VILALLONGAK EGIN DU PELIKULAKO GIDOIA"

Gainera, Garaik adierazi digunez, Vilallonga bera egon da pelikularen gidoia egiten laguntzen, "berak badaki eta denok dakigu, nobelan arrasatearrei buruz esaten duena gezurra dena: ez dauka pelikularen gidoia egiteko eskubiderik! Hori ez dago ondo, herria ofenditu egingo da" dio Garaik.

Garairen ustez beraz, pelikula nobelan guztiz oinarritzen bada ez du benetako historia kontatuko, "pelikula hau egin ondoren, Arrasaten benetan gertatu zena kontatzen duen pelikula bat egin beharko litzatekela uste dut".

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23


Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

J. R. Garaik Villalongaren "Fiesta" liburua: "Ez du Arrasate ez du Arrasate"...

Informazio ikaslea...
 Informazio ikaslea...
 Informazio ikaslea...

indian...
 indian...
 indian...



1936ko urriaren 24an hil zituzten Arrasateko 3 abadeak.

urkezpen beharrik gabekoak dira hiru pertsona hauek, adin batetik gorako mondrauetarrentzat behintzat. Aurreko orrialdean helduko gaiari jarraituz, gerra denboran fusilatuen artean Parrokiako hiru apaiz hauek ere bazeuden: **On Jose Joakin Arin** parrokoa, Billabonakoa, eta **On Jose Markiegi** eta **On Leonardo Guridi** abadeak, Deba eta Oñatikoa.

kistaren kontra tiro egiteagatik fusilatu zuten apaiza”, eta 36ko otsaileko hauteskundeetan eskumarako botoa ez eskatu izana ere leporatu zioten. Markiegi berriz, ikastoletan lanean ari zela...

Ikastolan bakarrik ez, korurako tripleak prestatzen, armonioa jotzen, Luistarrekin eta beste lan askotan ere ibiltzen zen.

Urriaren 21ean gauerdian izan zen lehen txandaren afu-

silamendua, Hernaniko kanposantuko atean: Bixente Madina, Norberto Mondragon, Isidoro Iturbe, Raimundo Galdos, Lorenzo Aranbarri, Juan Bengoa, Venancio Gaztañarez, Miguel Gaztañarez eta Pedro Agiriano. Abadeak Oiartzunen hil zituzten, 1936ko urriaren 24ean, eta eurekin batera Joseba Zeziaga ere bai.

Bigarren txandan J.A. Urionabarrenetxea, Faustino

Garitano, Felix Elorza, Dionisio Uribealzo, Bixente Irazola, Maria Areitio, Paula Mujika, Florentzia Olazagoitia (5 hilabetez haurdun zegoena), Gregorio San Pedro, Agustin Aranburu, Sabin Etxabe, Marzelino Ugalde, Luis Balanzategi, Imanol Madinabeitia eta Frantziska Oianguren hil zituzten. Pako Bidaburu eta Victoriano Balerdi Legazpin eta Lazkaron hil zituzten.



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
 ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
 Goizeko 9etatik 1a arte
 TFNOA: 79 19 21

**ELEKTRONIKA
 ARTIKULUEN
 SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

LABURRAK

“Lumazko Idazkeraren 5. lehiaketa” abian

Zabalik dago Lumazko Idazkeraren 5. lehiaketa. Urtero lez, zure idazkeraren nortasuna baloratzen duen lehiaketa bitxi honetako inpresok Tamayon jaso ahal izango dituzu.

Jadanik jakingo duzue, lumaz idatzitako testu bat aurkeztea da partehartzeko baldintza bakarra. Lehiaketa honetan, idazkeraren kalitatea eta pertsonalitatea baloratuko dira eta edozein adinetako pertsonak hartu ahal izango dute parte. Lehiaketa bi sailetan banatuko da: pertsonala eta kaligrafikoa. Pertsonalean 3 kategoria egongo dira: 12 urtera arteko haurrak, 12 urtetik 17ra bitartekoak eta nagusiak; sail kaligrafikoan berriz kategoria bakarra egongo da.

Sariei dagokionez, sail pertsonalean, nagusien kategoriako lehen saria azpimarratu behar da: irabazleak, Oscar Wilde-n serie mugatuko Mont Blanc luma bat eramango du (90.000 ptan baloratua). Sail kaligrafikoko lehen irabazleak ere, Mont Blanc luma bat etxeratuko du ere eta gainera, publikoak erakusketak ikusi ondoren bozkatuko duen sari bat ere izango da. Anima zaitetz eta hasi luma astintzen!

Leo Sanchez
Udalaitz auto-banatzailleko komertzio-burua



- Kotxe modelo bat? “Audi 100”.
- Kotxe kolore bat? Urdin metalizatua.
- Jendeak zein modelo eskatzen du gehien? “Golf”a.
- Gutxi? “Seat Marbella”.
- Zenbat kotxe saltzen duzue hilean? 8tik 10era
- Ile asko jausten zaizu? Bai.
- Mundua noizbaiten bukatu egingo dela uste duzu? Bai, baina ez dakit noiz.
- Kaseta, konpaktoa ala diskoa? Irratia.
- Emazteari oparitu diozun azken gauza? Urrezko pultsera bat.
- Zer iritzi duzu soldaduzkaz? Denbora galtzea besterik ez da.
- Zer iritzi duzu sekten gainean? Txarra, oso txarra.
- Animalia izango bazina? Tigrea.
- Emakume politikak daude Arrasaten? Bai, asko; guztiak dira politikak.
- Aktoresa bat? Raquel Welch.
- Alkondarak marradunak edo koadrodunak? Lisoak.
- Zein koloretakoa da zure hortzetako zepiloa? Zuria.
- Txikiteoan ibiltzeko ohiturarik? Ez.
- Zer falta zaio Arrasateri? Uf! Gauza pila bat: kirol instalakuntzak, gazteentzako ekintzak eta helduentzako eskaintza kulturalak.
- Zein izaten da zure etxean eztabaidagai nagusia? Etxeko-lanak, sekula ez dut laguntzen eta.
- Praka bakeroak ala pintzadunak? Pintzadunak.
- Zerk lotsaarazten zaitu? Jende guztiari gertatzen zaion moduan, nirekin sartzen direnean lotsatu egiten naiz.
- Gezur bat? Eguerdiro garbitzen ditut platerak!
- Begientzat kolore bat? Urdina.
- Bota iezaiozu lora bat zure emazteari: “Zein polita zaren!”

LAN MUNDUAN SARTZEKO IKASTAROA EMAKUMEENTZAT

ELETRIZITATEAN TREBATZE-IKASTAROA

BALDINTZAK -Emakume izatea
-Eskola Graduatu edo maila hori lortzeko konpromezua
-Emplegu eskatzailearen txartela.

EDUKINA -Elektrizitaterako sarrera.
-Soldadura eta muntaia elektrikoak.
-Instalazioko matxurak aurkitzea.
-Elektratresna txikien konponketa.

IRAUPENA -Azarotik apirilera bitarte (260 ordu).
-Asteleheneetik ostiralera, 3,30etatik 6,30etara.

-Enpresa-Gestioa.
-Enpresa-Marketing-a.

IZENEMATEA 1994ko Urriaren 21tik 28ra.
Santa Teresa, 12
Tfnos.: 79 04 59

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte-Segurantzza Sailak diruz lagundutako ikastaroa. Lankidetza: EMAKUNDE.

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua



• AIPUA •

Liburuzale batek gainditu behar duen lehen arazoa eta larriena zera da: ahalik eta liburu gutxienekin liburutegi bikain bat egitea

MOURAVIT

• JEROGLIFIKOA •

EKAINA
21
ASTELEHENA



Non dago Xabi?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10						11	
12					13		
14				15		16	
17		18	19		20		
		21					

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Gaixotasun. 9. Bururatu, oroitu. 10. Burla, trufa. 11. (Ald.) Multzoa adierasteko atzizkia. 12. Jipoi. 14. Talioa. 15. Gurdy. 17. Oilarraren emea. 20. (Ald.) Nasa. 21. Munduko sei kontinenteetako bat.

Bertikalak 1. Afrikako estatua, Alkairo da hiriburu. 2. Zubizarreta, Abaroako lehendakaria. 3. Apoaren antzekoa. 4. Leku. 5. Auzi, problema. 6. Sozietate Anonimoaren siglak. 7. (Ald.) Helburu. 8. (Ald.) Akatsak dituen. 13. Azkar, agudo. 16. Zerbait egiteko balio duena. 18. LEZoko kontsonanteak. 19. Ontzat emana.

• HOROSKOPOA •

Aries Aspertuta bizi bazara, 016 telefono zenbakira deitu.

Taurus Ez dizute esan zinegotzi izateko balio duzunik?

Gemini Hasi loteria erosten, aurten tokatuko zaizu eta.

Cancer Praka laranja, alkondara gorria. Daltonikoa ote zara?

Leo Irratiak baino gehiago hitzegiten duzu. Isil zaitez.

Virgo Zuk bolanta sareekin ere ez zenuke ligatuko.

Libra Zure etorkizuna Afrikan dago, elefante eta lehoien artean.

Scorpio Lanpetuta bizi bazara, langabezia daudenekin gogoratu.

Sagitarius Zenbat kafe hartzen duzu egunero? Hori da marka!

Capricorn Argazki kamarak ere ezin dizu begiratu. Zein itsusia zaren!

Aquarius Azken erabakirik ez hartu, oraindik badaukazu denbora.


Piscis Oso berdea zarela esaten dizute, baina ez begetariano zarelako.



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...


TELEBISTAREN TXOKOA

“Hauteskundeak 94”: Lehen emaitzak ATBn



gande honetan izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Hain gertaera azpimarragarria den honi bere garrantzia eman nahi diogu ATBn; horregatik, igandean 22.00ak aldera, Mikel Irizarrek “Hauteskundeak 94” saioa zuzenduko du. Programan zehar, herrian irtendako azken emaitzak jakiteaz gain, alderdi bakoitzeko ordezkari bat izango da programan guztia komentatzeko. Hauteskundeon Arrasateko emaitzak jakiten lehena izan nahi baduzu, ATBn daukazu horretarako aukera!

KOMIKIA


EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PROGRAMAZIOA

**23 Igandea**

22.00etan
“Hauteskundeak 94” Aurkezlea:
Mikel Irizar.

24 Astelehena

13.30etan
“Hauteskundeak 94” (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

25 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

26 Astezkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka
Gonbidatua: **Martxelo Otamendi**, Egunkariako zuzendaria.

27 Osteguna

13.30etan
Bakarka (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Ibilixan Dabilena
Gonbidatuak: **Felix Iñurrategi**.
Aurkeztu beharrik ere ez dago.
K-2 mendira egindako azken espedizio arrakastatsuan bizi izandako arrisku, poz eta esperientzia guztiak kontatuko dizkigu.
Erreportaia: “Windsurf”a.

28 Ostirala

13.30etan
Ibilixan Dabilena (errep.)
19.15etan
Marrazki Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete Xabier Ibarzabalek
aurkeztua.
22.00etan
Marrazki Bizidunak

SOLUZIOAK

Udaletxean.
Jergofitkoa:
LZ. 19. OE.
8. Akasdu. 13. Arin. 16. Gal. 18.
Igel. 4. Toki. 5. Arzo. 6. SA. 7. Iiu.
Bertakak: 1. Egipto. 2. Rosalio. 3.
Ozeania
TL. 15. Orga. 17. Olio. 20. Kal. 21.
ratu. 10. Iseka. 11. Di. 12. Paliza. 14.
Horizontalak: 1. Eritasun. 9. Gogo-

Etxebizitzak

- **Pertsona bat behar da** Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 78 13 59.
- **Neska batentzako logela** bat daukagu (sukalderako eskubideaz). Tfnoa: 79 58 22. Dei egin eguerditan edo gauez.
- **Donostian, zentruko ikasle-pisua** osatzeko neska behar da. Banakako gela. 15.400 pta. Tfnoa: 77 00 29 (goiz partean deituta hobe).
- **Donostian ikasle pisu** batean, gela bat libre daukagu alokatzeko. Interesatuta bazau-de, dei egin 79 33 58ra.
- **Ikasle pisu batean** logelaren bila nabil. Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoa: 39 83 73. Dei egin asteburuetan.
- **Bere etxean ikasle bat** hartuko lukeen familia bat behar da. Tfnoa: 64 08 76. 8'00etatik 10'00etara.
- **Langile batek etxebizitza behar du** alokagai Arrasaten. Tfnoa: 88 25 71.
- **Bi ohetako gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua salgai** Okendo kalean, 1 - 5º A. Tfnoa: 79 94 36. Arratsaldezu deitu.
- **Pisu bat daukat alokagai.** 4-5 pertsonentzat. Erdikaldean. Tfnoa: 79 18 03.
- **Garaje bat alokagai** Roneon. Tfnoa: 79 36 09.
- **Garajea salgai** Atxabaltan. Tfnoa: 79 29 19.
- **Bi kotxe gordetzeko garajea** alokatzen da (Roneon) Tfnoa: 79 77 13. Dei ezazue gaueko 9etatik aurrera.
- **Erdiko kalean pisu on bat** alokatzen da, 4 edo 5 pertsonentzako. Dei egin 77 03 38 / 79 18 03 Tfnoetara.
- **Pisu bat erosi edo alokatuko** nuke. Tfnoa: 79 31 25

Lana

- **Emakumea** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest dago. Tfnoa: 79 60 18. Mª Carmen.
- **Enpresa zientzietako lizentziatuak** klase partikularrak emango lituzke. OHO, BBB edo UBI mailatan eta enpresetako ikasleei. Tfnoa: 79 16 19. Esperientziaduna.
- **Emakume euskalduna** etxekolanak egin edota umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska bat eskaintzen da** etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 76 27. (dei egin 9etatik 11tara).
- **OHOko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **33 urteko andra bat** pertsona nagusiak zaintzeko prest, arratsaldezu edota gauez, egotzean edota etxe partikularretan. Tfnoa: 79 34 09. Amaia.
- **Aramaioko "DUKIENA" jatetxeak** sukaldari bat behar du. Harremanetarako dei egin 945-44 50 86 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen ditut** urte osoan zehar. Tfnoa: 79 31 48.
- **OHOko klase partikularrak** ematen dira. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 59 68.
- **23 urteko neska euskaldunak** dendari edo kamarera moduan egingo luke lan. Tfnoa: 79 41 33.
- **Emakumea** eskaintzen da etxeko garbitasunak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 31 58.

Salerosketak

- **Eskiatzeko ekipoa salgai:** 1,80m. etako DINASTAR markako tablak. LOOK markako fijazioak eta bastoiak. Prezioa: 15.000 pta. Interesatzen bazaizu dei egin 79 17 96 tfnora.
- **Salgai:** - PHILIPS telebista 20 hazbetekoa. - 2 radiadore FAGOR programadoreaz. - Teklatu-organoa LOWREY. Oso merke. Tfnoa: 79 82 47. Gauez.
- **Alarma sistema bat,** denda edo taberna baten-tzako, salgai. Tfnoa: 79 53 18. 70.000 Pta.
- **100 litrotako termoa salgai.** Egoera onean dago. Tfnoa: 79 07 73.
- **VOLKSWAGEN "CORRADO"** markako autoa salgai. 16 balbula. SS-AG. Tfnoa: 76 38 16. Gaueko 8etatik 10etara deitu.
- **Pinuzko ateak salgai.** Estrenatu gabe. Tfnoa: 79 25 20.
- **Bigarren eskuko ordenagailu** bat erosi-ko nuke. Tfnoa: 77 04 98. Irene (Bulego orduetan).

Denetarik

- **Xaramela inguruan** kartera galdu zitzaidan astelehenean (urriak 3). Norbaitek aurkitu baldin badu, mesedez jar dadila nerekin harremanetan. Nestor Arana. Tfnoa: 77 04 50.
- **Egunero Gasteiza joan** beharra daukat goizeko 8etarako. Nahi baduzu nirekin etorri (gastuak erdibana) hor doa nire tfnoa: 79 80 91.
- **Urrezko pultsera aurkitu dut** Lorategi taberna ondoan. Jesus izena darama. Tfnoa: 79 41 48.
- **Ostiralean kazadora bat** aurkitu nuen erdikaldeko autobus geltokian. Tfnoa: 77 10 59.
- **Deba-Elgoibarretik** 4etatik 7etara pasatzen bazara, dei egidazu 79 20 52 tfnora. Xabier.

Aste Gazte

Lana

• Donostiako Udalak lanpostu hauen deialdia egin du: 1. mailako ofizial bi, artikutzako langile bi, goi mailako hiru teknikari, geografo 1, injineri industrial teknikari bat, erdi mailako teknikari bat, gizarte-laneko zortzi teknikari, gizarte ongizate erdi mailako teknikari bat, bi itzultzaile, digitalizazio kartografiako teknikari bat, hiru obra-ikuska-tzaile, zazpi merkatu-zaintzaile, telefonari bat, basozain bi. Epea: urriak 25.

Ikastaroak

• "Ingurune inpaktua eta

geografi informaziorako sistemak" ikastaroa. Azarotik-mar-txora bitartean. Matrikula: 40.000 pta. Epea: urriak 28.

• "Lurralde-ikasketen metodo-logia eta praktika" ikastaroa UNED-Bergarak antolaturik. Eskola orduak: 116. Hitzaldi teoriak eta saio praktikoak. Matrikula: 30.000 pta. Epea: azaroak 10.

• "Clown ikastaroa". Hastapen mailako ikastaroa, Oihulari clown antzerki taldearen eskutik. Legazpiko aterpetxean, urriaren 30-31ean eta azaroaren 1ean. Prezioa: 12.000 pta, aterpea eta mantenua barne. Epea: urriak 25.

• Dantza Jazz (Dantza Moderna), azaroko larunbat guztietan, arratsaldeko 5etatik 6.30etara, Arnaldo Patterson irakaslearen eskutik. Matrikula: 3.000 pta (1.500 ikasle eta langabetuentzat).

Lehiaketak

• "VII komiki lehiaketak", San Andres del Rabanedo udalak antolaturik. Maila ezberdinak: gazteak, zaletuak, profesionalak eta herrikoak. Lanak zuri-beltzean zein koloreetan aurkeztu daitezke. Epea: azaroak 30.

• "Biotxu" sariak. Ingurugi-roari buruzko heziketa, babesa eta zaintzarekin loturik dauden lanak aurkez daitezke. Lanak euskaraz zein erdaraz onartuko ditu. Epea: urriak 24.

"Gaztetasuna, ez dezagun ahaztu, berez galtzen den zerbait dugu."

CAMILO JOSE CELA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

MIREN ARRIETA

ESTETIKA ZENTRUA



MIREN ARRIETA

- Datorren urriaren 24tik 28ra bitartean Ines Lopezen bisita izango dugu.
- "La Prairie"ko estetika aholkulari honen eskutik, zure azalaren azterketa egiteko aukera izango duzu.

- Itxurari dagokion garrantzia ematen diozuen denek, gonbidatuta zaudete.
- Honetaz gain, opariak ere izango dira.

Zatoz! Zure azalak merezi du.

ZERKAOSTETA, 12 ☎: 79 00 35 ARRASATE



la prairie
SWITZERLAND

ELEKTROGAILUETAN
MARKA GUZTIAK

Berango

A L T Z A R I A K

BARRUKO ETA
KANPOKO ATEAK



*Sukalde-aitzariak
doan izan daitezke*



ERAKUSKETA

Legarre pabilioia, z/g
Gipuzkoa etorbidea
☎: 79 01 92



OPEL VECTRA BERRIA

merit



GUTXIK EMATEN DUTE HAINBESTE HAIN GUTXIREN TRUKE.

115 CVko 2.0i alemaniar batek adina, Opel injinerutza Alemaniar ospetsuak indartua. Zuk merezi bezalako ekipamendua: **Direkzio lagundua, pretentsoredun segurutasun uhalak, alboetako segurutasun-barrak, itxitura zentralizatua, leihoak isteko elektricoa, atzekaldeko jarlekuetan ere burua etzatekoa, antena elektrikoa...** ikusteko zein berba egiteko hainbeste emango dizu, ezin zara Opel Banatzailearengana probatzera etorri barik geratu. Izan ere, sekula ez duzu hain gutxiren truke hainbeste jaso.

OPEL VECTRA MERIT BERRIA. BERE PREZIOA MERITU HUTSA DA.

OPEL

Z U R E Z A I N G A U D E

**10^o
URTEURRENA**

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL BANATZAILE OFICIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.